


2003ko azaroa

21. zenbakia

aikor!


txorierriko aldizkaria



Derioko seminarioa, zer zinan eta non hago

Elias Amezaga - Ane Barrenetxea - Euskeraren eguna- Lainomendi dantza taldea

ETXEKO KONPONKETAK TXORIERRIN BERTON



CESARI LÓPEZ GUERRA
San Martín auzoa, 184
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ENRIQUE PALMOU

Hurgailu

San Martín, 35
Tfn: 94 55 71 40
ZAMUDIO



electricidad derio elektrizitatea

Kondu-ekintzekoak - Instalazioak - Mantentzeak

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aldon Kalea, 1 - Tfn: / Fax: 94 454 01 45 - 48180 BERRIO (Bizkaia)

**CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.**



**ANDER ETXERRARIA
MIKEL ETXERRARIA**

Tfn: eta fax: 94 455 85 82
947 34 77 87
947 34 99 52

Gentxoa auzoa, 142
48188 IZTAMA
Murcia



Remirez Instalaciones S.L.

**Enpresa Instalatzailea:
berogailua, gasa eta ura**

Iturrikoetza, 3 - 48193 LARRABETZU (Bizkaia)
Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Jorge Cristóbal
DORCALU - TOKIARI

Extramur Ibaiztekoa, 28
Zorrotza - Murcia

968 840 401
ordalor@prodnet.es



GARAIOLTZA, S.A.
PREMIEREMBAIMENDIAK

LEZAMA

ERREKINTZAK, BERGINTZAK, ERGAILUAK ETA GARAIOLAK
LEHEN MAILAKO KALAKINTZAK, LEHIATU BARRIAK
ERREKINTZAK, BERGINTZAK, ERGAILUAK, GARAIOLAK

T.F. : 94 455 50 19

Uzueña auzoa, 113 (Ondoa)
Lezama (Bizkaia)

BASKOLAN
construcciones

**Fatxadak, teilatuak,
terrazak eta patioak
konpontzea eta irazgaitzak egitea**

Uzueña auzoa, 113 (Ondoa)
Murcia, E

968 840 401 (Bizkaia)
E-mail: bascolan@prodnet.es

Tel: eta Fax: 94 455 50 19



Rafael Barona Ordóñez

*Pintura industrial eta apaintzekoa
Aurrekontuak konpromisorik gabe*

San Martín auzoa, 73 beheko, esk.
Telefonoa: 91 437 10 80

48016 ZAMUDIO
(Bizkaia)

Aislamientos Derio

*Plokanonko teilatuak eta gabatoak
Sistemi erregulagarriak
Inerziazko termikoa eta akustikoa
/ Hurduruetako aplikazioak*

Miguel Ángel Pérez Martínez

Murgulde etorbidea, 12
48180 IZTAMA (Bizkaia)
Tel: 94719 491 791 094
C.I.F. : B11 11711 66414



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Bihotz Bakartien
klubeko kidea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Oihana Astobieta,
Lourdes Lasuen, Jasone Astola,
Asier Oruetxebarria, Juan Luis
Goikoetxea, Arantzazu Mendiguren,
Jurgi Kintana, Toti Martinez de
Lezea, Beñat Aiarza, Pedro Mari
Olabarrieta, Arrekikili, Saionara eta
Maripi, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzten aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Basque Language Institute



Basque Language Institute

diruz lagundutako aldizkaria




13 Ane Barrenetxea



20 Derioko Lainomendi dantza taldea



24 PTP



11 Elias Amezaga



14 Euskararen eguna



19 Mikel Zarate

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Literatura eskola
11Gurean izan da Elias Amezaga 12Gazteen txokoa 13Gaztea
eta... Ane Barrenetxea 14Euskararen eguna 16Derioko
seminarioa 19Mikel Zarate 20Derioko Lainomendi dantza
taldea 22Baserri mundua 23Teknologia 24PTP 26Txorierri
ezagutu 27Txorierriarrak munduan 28Sukaldaritza
29Denbora pasa 30Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu,
hemen dozu erea:**

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ **e-posta** _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro___ **beste kopuru bat**___

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Bizkaieraz ala euskaraz?



Jurgi Kintana Goirieta
(Historialaria)

Bilbotarra sortzez, urte birik hona bizi naiz Txorierrin. Eta denbora honetan, sarritan izan dut bertoko berbetaren soinu apatz eta gozoak entzuteko aukera. Bai, benetan da gozoa Txorierriko euskaldun zaharren hizkera. Zein da baina bertoko berbeta? "Bizkaiera" erantzungo du batek baino gehiagok. Ez luke, ordea, halakorik esango hemen go baseritar batek. ltaundu ostantzean zeuen aitite-ama-mari. Txorierriko nahiz Bizkai osoko euskaldun zaharrek "euskera" deitu izan diote beti euren berbetari; sekula ez "bizkaiera". Zergatik? "Bizkaiera" ez delako ezelango hizkuntza, eta "euskara", ostera, bai.

Zer da orduan "bizkaiera"? Filologoek asmakizun bat. Ez duzula sinesten? Zoaz Ondarrura edo Bergarara, entzun hango berbetak, eta ea Txorierrikoaren antzik duten. Belarriak ezetz esango dizu. Filologoek baietz, denak "bizkaiera" direla. Izan ere eurek asmatu dute hitz eta ideia hori, ez euskaldun zaharrek. Eta izena ere sarri aldatu diote: sasoi baten "Bizkai-euskera" esaten zioten, gero "bizkaitarra" eta azken urteokaz "mendebaldekoa". Eta ez dago txarto filologoek euren beharretarako komeni zaizkien ize-

nak eta sailkapenak asmatzea. Baina ez ditzagun nahastu ikertzaileen izenak eta bizitzako errealitateak. Herriak bere hizkerari beti "euskera" deitu izan dio; filologoek sortutako "bizkaiera", "gipuzkera", "batua", "mendebaldekoa" edo "zubera" ote zen ardura izan barik.

Tradizioa apurtuz, ordea, filologoek sailkapenak herri mugimenduen eskari bihurtzen ari direla dirudi. Hola, azkenaldion, "bizkaiera" defenditu beharra sarri entzuten dugu. Eta horrekin ahaztu egiten da Txorierrin, Euskal Herri osoan legetxe, gatazkan dauden berbetak bi direla: euskara eta erdara; ez "bizkaiera" eta "batua". Euskaldunon hizkuntz arazo nagusia zein den ez ikusteak kaltea baino ez dakar. Hasteko, gatazka euskaldunon artekoa bihurtzen du, euskalkidunak eta euskara batudunak banatuz, euskaldun berriak eta zaharrak bereiztuz, euskaldun jatorrak eta euskaldun mordoi-loak zatituz. Ez ote zen nahikoa erdaragaz geneukan lehia? Ba antza ez. Ematen du euskaldunon batasuna

indartu beharrean gurago dugula geure arteko zatiketa bultzatzea. Eta zeren izenean? Filologoek asmatu duten "bizkaiera" izeneko entelekia baten izenean.

Zer egin orduan? Hasteko, zatiketarik ez bilatu. Bakoitzak dakiena eta gusturen darabilen berbeta egitea dauka. Hizkera desberdinak errespetatuz eta euskara hizkuntza bakarra dela gogoan edukiz. Etxeko euskara eta batua elkarregaz aberastu daitezke, inori berea txarra dela esan beharrik gabe. Era horretara, euskaldun zahar zein berri, guztion artean euskara osoagoa eta joriagoa sortuko dugu. Egin dezagun ba euskaraz!

Ama Lurra



Toti Martinez de Lezea
(Idazlea)

Denbora igaro ahala, euskaldunok ahazten goaz behinolako sineste zaharrak. Oraindino gelditzen dira hondar batzuk subkontzientean, berbetan, folklolean, baina honezkero ez da eguzki lorerik ikusten ateetan, egurgileek ez diote arbolari barka eskatzen behera bota aurretik, eta etxe banaka batzuetan baino ez dute segitzen eguberri-egurra pizten.

Antzinako euskaldunen izaeraren eta bizimoduaren gomuta daukagu, baina eurok gero eta urrunagokoak begitantzen zaizkigu. Kristautasuna heldu aurretik, gure herriak Marigan, Ama Jainkosagan, sinisten zuen, eta luzaroan haren sinesten jarraitu zuen, gure lurretan lehenbiziko eliza edo ermita altzarazi eta gero ere; Ama Lurra irudikatzen zuen, emankortasunaren jainkosa, zeinengandik denak zetozen, eta zeinengana denak itzultzen ziren mundu aldia amaitu ondoren, berriro ere pizteko bizitzaren hasiera eta amaiera den Lur horretatik.

Mari da, izan, Europan bizirik gelditzen den Ama Jainkosa baten azkeneko oroigarria, gizakiaren lehenbiziko sinestea, gure herri zahar eta maite honen antzinatasuna egiaztatzen duena.

TXORIERRI
Anmolletaria

VEHICULOS DE TURISMO Y DEPORTES
SERVICIO DE ALQUILER DE VEHICULOS
MANTENIMIENTO Y REPARACIONES
LICENCIADOS

TEL: 945 455 00 20

AVTOMOBILISTARIN ETXERAKO

TEL: 945 455 00 20

AVTOMOBILISTARIN ETXERAKO

GARRAJOLARIA

Miguel Ángel Ibarra

ANDRA MARL 10
1 ARRANITZULI
Tlfno: 94 455 00 20

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Hori bai gazte elkarte

Ipuinetan agertzen den bezala maitasunak eraman ninduen Larrabetzura. Amankomunean gutxi zuen herri batetik nindoan, baina hasieratik herri honek mugitzeko zuen gaitasuna itzela zela sentitu eta ikusi nuen. Ez noa orain Larrabetzun dauden elkarte guztien izenak esatera, baina batena bai. Gabonak hortxe bertan ditugunean, orain arte fetxa hauetan herriari bizia eman dion eta hamabostaldi kultural bat eman dion elkartearen izena aipatu nahi nuke, HORI BAI GAZTE ELKARTEA hain zuzen ere.

Nire pertsonaren zati handi batek Maripi izateari utzi zionetik, hau da, "Julen eta Arrateren ama" naizenetik, eta nire seme-alaben etorkizunaz arduratzen naizenetik askotan pentsatu izan dut ama bezala nire seme-alabek elkarte honetan parte hartzeko aukera izatea gustatuko litzaidakeela, baina, klaro, horretarako elkarteari irauteko baldintzak eman behar zaizkio.

Ez da nire asmoa orain baldintza horiei buruz gure aldizkari honek ematen digun

espazioan idaztea, baina bai orain gazte elkartearen parte hartzen duten gazteei aurrera jarraitu dezatela eskatzea, nahiz eta mila oztopo bidean aurkitu (kontatu didate elkarteak bizirik daraman urte luze hauetan sasoi txarrak gainditu dituela, eta zuek ere egingo duzuelakoan nago). Badakit autogestioa duzuela oinarrietariko bat, baina bueno hainbat jende (gazte-gazte ez, baina bueno) laguntzeko prest daukazu.

Maripi

Etorkinak gurean...

Aikor!-ek Txorierriko etorkinei buruzko erreportajea argitaratu eban orain dala gutxi. Geroago, hainbat gorabehera izan ziran komunikabideetan "etorkin" berbea dala eta ez dala. Guk Zamudion bizitako egoera baten barri emon gura dogu lerro honeetatik. Gure herrian bizi diran etorkin batzuk Zamudio K.E.ko futbol ekipoko kideak dira eta denboraldiaren hasieran Bizkaiko Futbol Federazioa jo eben fitxa sartzeko, baina bertan ez eutsien onartu, erresidente baimenik ez eukielako. Ezin genduan ulertu holango bazterketa bat eta gainera hamar urteko ume batzukaz. Agintariak behin eta barriz integrazio bidea jorratzearen alde ari

dira, tratu eta eskubide bardinak izateko legeagaz, eskolaratzeko eta Osakidetzako asistentzia izateko eskubidea onartzen deustie eta laguntza be bai. Baina hara non bere herriko lagunakaz futbolearen olgetako eskubidea ukatzen jaken.

Batera eta bestera deika hasi ginen: Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, SOS Arrazakeria. Ez eban inork sinesten. Makina bat buelta emon eta gero, lortu dogu Federazioak onartzea. Baina ume hau futbolearen onartzea ez zan gure helburu bakarra, ume guztiak eta kirol guztietan onartzea baino. Azkenean, batez be, SOS Arrazakeriaren laguntasuna

dala medio, E.J.ko Kirol eta Inmigrazio Zuzendaritzek erakutsitako konpromisoari esker lortu da. Esan beharra dago agirian geratu dala Estatu osoan (Katalunian ezik) hemen geunkan egoera bardinean dagozala, eta beste leku batzutan be konpontzeko bidean hasi direla. Oinarritzko eskubide bat, gure seme-alabakaz olgetakoa hain zuzen, eskuratzeko balio izan daualakoan gagoz. Hemendik, egunero gertatzen diren eta normalizat emoten doguzan holango egoerak salatzen gonbitea egin gura deustuegu.

Ruben eta Alex




Zerurena Jatorria

Protagonista: Zerurena, 70
 Buztea: 481 488 827 84
 Fax: 481 487 728 74
 www.zerurena-jatorria.com



Eusko Jaurlaritza
 EUSKO JAUZARITZA
 EUSKO JAUZARITZA

Barrio de San Juan, 20B
 48100 ZAMUDIO (BIZKAYA)
 Telefonoa: 941 487 44 00
 Fax: 941 487 44 00
 e-mail: ikert@eja.euskojaurlaritza.com
 e-mail: zerurena@eja.euskojaurlaritza.com
 www.eja.euskojaurlaritza.com



GAMINIZ
 RESTAURANTE

RESTAURANTE GAZTE
 GAZTE

Restaurante GAZTE GAZTE
 Zerurena 70
 48100 ZAMUDIO (BIZKAYA)
 Tel: 941 488 827 84

Derioko suhiltzaile-etxea Mungiaira eramán nahi dute

Oraindik data zehatzik egon ez arren, Derioko suhiltzaile-etxea Mungiaira eramateko asmoa dauka Bizkaiko Foru Aldundiak. Erabaki honek ez ditu suhiltzaileak ustekabeen harripatu, eurek azaldu dutenez, orain dela zortzi urte suhiltzaile-etxea Mungiatik Deriora ekarri zenean, gauza jakina

zelako hura behin-behineko egoitza zela. Mungiaiko egoitzan hainbat konponketa egin beharra zegoen orduan. Suhiltzaileek aipatu dutenez, Derioko suhiltzaile-parkean ez daukate lan egiteko behar beste azpiegiturarik, eta horregatik euren lan-baliabideak hobetu egingo dira aldaketa honekin.



4.000 lagunek bisitatu dute Parke Teknologikoa

Azaroaren 16an Zamudioko Parke Teknologikoak atea ireki zituen, herritarrek ikusteko. Bertara bildutako 4000 lagunek Parke Teknologikoko enpresen lana ezagutzeko aukera izan zuten. Umeentzat hainbat tailer eta joko antolatuta ziren eta, horrela, txikiak primeran pasatu zuten teknologia berriekin jolasten.

Beste alde batetik, Athleticen nesken taldeko jokalariek eta Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak ere bertan egon ziren, baita baserritar batzuk ere. Baserritarrek euren produktuak elaboratzeko egin beharreko lanak erakutsi zizkieten herritarrei. Erakusketaren ondoren, besteak beste, eztia, gazta eta euskal pastela dastatu ahal izan zituzten guztiak.

Aikor!-ek bigarren urteurrena ospatuko du

Aikor!-ek urte bi beteko ditu laster, eta, urteurrena ospatzeko, iaz bezala, jaialdia egingo da abenduaren 18an, arrastiko 8etan, Lezamako txokoan. Ekitaldi honekin, alde batetik, aldizkariaren urtebetetzea ospatuko da eta, bestetik, Aikor!-eko kolaboratzaileen laguntza ordainezina goraipatu nahi da. Batez ere, euskararen alde diharduten hainbat lagunei saritu gura zaie, baita aurrera egiten laguntzen diguten Txorierriko denda eta enpresei ere. Beraz, abenduaren 18an hitzordua dugu Lezamako txokoan. Bertan, lunch bat eskainiko da, txalapartarien eta trikitilarien soinuak alaiturik. Azpimarratzekoa da Mikel Zarateren omelandiaren Txorierriko aurkezpen ofiziala bertan egingo dela. Bigarren urteurrena iazkoa bezain arrakastatsua izatea espero da.

Gazte topaketak Zamudion

Azaroaren 28an, gazte topaketak izango dira Zamudio dorrean, iluntzeko arrastiko 8,30etan, Gazte Asanbladak antolatuta. *Zamudion gazte nola izan* izeneko ekimen honek herriko gazteen arteko harremanak estutzea du helburu.

EHNA eskuratzeko bulegoak jarriko dira abenduan

Abenduaren 13 eta 14an, Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) tramitzeko bulegoak jarriko dira Txorierriko herrietan. EHNA eskuratu nahi dutenek oraintsuko hiru argazki, 12 euro eta udal eroldaren agiria eramán behar izango dituzte.

EHNA egiteak Euskal Herria Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako lurraldeez osaturiko herria dela adierazten du. Gainera, Euskal herriaren hizkuntza euskara dela eta, beraz, euskal lurralde osoan estatus ofizial nahikoa izan behar duela aldarrikatu ere egiten du. Halaber, Euskal Herria, bere buruaren jabe, beregain, libre eta demokratikoki erabateko eskubidea duen nazioa dela suposatzen du.

ARTIZAR
 ENPRESA ARTZAROKO TALARRIA
 40004-40004, 3
 94 454 50 50

MARMOLGINIZA
GOYO
 SIKERAREN GAITERROAK
 USKAK ETA HILERRIAK
 Urdullegaren 11. ind., 11. K. bilera
 48100-08000 (Kulera)
 T. Enea: 94 454 02 90 - Fax: 94 454 50 50

LA FORTUNA
LA FORTUNA
LA FORTUNA
 Ofiziala Euzkoan
 48100-08000 (Kulera)
 94 454 02 90

ZAMUDIOKO ESTANINDA
 Taloak, ilbera eta oporak
 Taloak, ilbera eta oporak
 Taloak, ilbera eta oporak

ARTAROKO
 ENPRESA
 40004-40004, 3
 94 454 50 50

BIDE-GORRI
 Bide-gorriaren aldean
 Bide-gorriaren aldean
 Bide-gorriaren aldean

Irrati Maratoia Derioko Ilotz irratian

Derioko Ilotz Irratiak (108.0 FM), urtero bezala, 24 ordu iraungo duen maratoia antolatu du abenduaren 26rako. Ostiralean gaueko 22:00etan hasi eta larunbatean 22:00etan bukatuko den emanaldi berezi honetan, irrati entzuleek primerako sariak irabazteko aukera izango dute euren deiekin. Nola ez, irratsaioan zuzenean sartu eta parte hartu ahal izango dute, eta, gainera, musikarik onena entzun eta momentu atsegin bat pasatzeko aukera izango

dute. Eta hori guztia zuzen-zuzenean eta lotu barik 24orduz. Maratoiari buruzko informazio gehiago 108.0an izango duzue. Irrati emisioa Derion eta inguruko herrietan baino ez da entzuten. Arazorik izanez gero, edo bizi zaren tokian ez bada irrati ondo sintonizatzen, sartu www.ilotzirratia.com web orriari eta bertatik irrati entzuteko aukera izango duzue; bestela, idatzi helbide honetara ilotzirratia@navegalia.com edo deitu gure telefonora 944542161.



Lezamako torrea ondare kulturala

Aretxalde auzoan kokatuta dagoen XVI. mendeko Lezamako Torrea, ondare kulturala izendatu dau Eusko Jaurlaritzak, monumentu kategoriagaz. Saillapen honek Torrea bera eta inguruan 60metroko erradioan dagozan lursailak babesten ditu. Orain Udalak honetara egokitu beharko ditu arau urbanistikoak, eta Foru Aldundiak onartu beharko ditu babestutako arloan egin beharreko obrak.

Nobedadeak Sondikako Gabonetan

Urtero lez, Olentzero eta Belen biziduna egingo dira Sondikan, abenduaren 24an. Txuma Olagüe abesbatzak, eskolako gurasoen elkar-teak, Goraintzaileak dantza taldeak eta Ipar Elaiak txistu taldeak hartzen dute parte ekitaldi honetan. Aurten, nobedade moduan, ekintza berezia egiteko asmoa dauka Udalak. Olentzerok eta Belenak idi buztarriak tiratutako gurdian egingo dute kabalgata. Gainera, perkusio talde bat, malabaristak eta hainbat animatzaile ibiliko dira eurekin herritik zehar. Kabalgata Udaletxetik aterako da arratsaldeko 5etan.

Gainerako egunetarako, umeentzako egitarau zabala prestatu du Sondikako Udalak. Esaterako, etxeko txikientzat irtenaldi batzuk antolatu ditu Max-Centerera eta Bilboko PINera joateko. Gainera, *Peter Pan eta Marixe* musikala ikusteko aukera ere izango dute Euskalduna jauregian. Beste alde batetik, aurten Derio, Zamudio eta Lezamako PIN-ak ere bisitatu ahal izango dituzte.

Loiuko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu Gabonetarako

Loiuko Udalak Gabonetarako programa prestatu du. Ekitaldiak adin guztietako jendearentzakoak izango dira eta abenduaren 20an hasi eta urtarrilaren 2an amaituko dira. Programari azkeneko ikutuak ematea falta bada ere, ekintza batzuk aurreratu ahal izango dira.

Esaterako, abenduaren 20an, arrastiko 7,30etan Gabon Kanten jaialdia izango da elizan. Abenduaren 23an, arrastiko 5,30etan, Gabonetako postalen sariak banatuko dira Kultur Etxean.

Abenduaren 24an, Olentzero herriko pilotalekura helduko da. Ekitaldi hau nahikoa jendetsua izaten da eta pilotalekura ume asko batzen dira ikazgina ikusteko. Iaz 120 ume inguru egon ziren bertan.

Ekitaldior gainera, Loiuko Udalak beste batzuk antolatu ditu Gabonetarako: Gabonetako Jolas Parkera joatea, txotxongiloak, ipuin kontalaria...

OLANDO S.L. ARROZTEGIA

- Sukaldeko altzariek, neurria egiteak.
- Deltugelako altzariek, neurria egiteak
- Ihorra-erretzak
- Mehatxak eta sutitxak
- Tortxotxerako altzariek

01001 BILBAO
C/Alameda, 34
944111111 (Bilbao) Telifax: 94 42 99 79

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, S.L.

40010 BILBAO
Tel: 94 42 99 248 Fax: 94 47 06 18
40010 BILBAO (Bilbao)



LIBRERIE
SONDIK
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JANUARIAREN 15AN ABERTUAK

Liburugatik, liburuak, pluma liburuak,
prentza, abeslariak, liburuak,
guztiak eta abarrik.

Milari Zuzena, 3 Tel: 944291163
40100 BILBAO (Bilbao)

Larrabetzuko saihesbidearen kontrako kontzentrazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean

Azaroaren 15ean, Larrabetzuko 35 bat lagun bildu ziren ordubetez Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, Geroa elkarteak deituta. Kontzentrazio honen bidez, urian egin nahi den saihesbidearekin bat ez datozela adierazi zuten.

Geroa elkarteak azaldutakoaren arabera, egitasmo honen lehenengo fasean, bide azkarra egingo da Urkulu baserritik Goikola auzoraino. Errepideak Goikoelexaldetik gora egingo du eta Aspuruako bihurgunea kenduko da zati horretan. Era horretan konponbidea eman nahi zaio herriak trafikoa-kin duen arazoari.

Geroa elkartearen ustez, herrian zein neurritarainoko arazoa dagoen ikusita, ez da beharrezkoa halako obra erraldoia egitea. Are gehiago, egitasmo

honek Larrabetzura trafiko gehiago ekarriko duela uste du elkarteak. Herrian trafiko mota bi daude, trantsitukoa eta herrikoa, eta bioi konponbide bera eman behar zaiela pentsatzen dute, ezin baitira bereiztu. Gainera, euren iritziz, Txorierriko korridorea inauguratu arte itxaron beharko litzateke jakiteko zelango bilakaera izango duen trafikoak.

Beste alde batetik, Geroa elkarteak saihesbideari alternatiba bat aurkeztu dio. Alternatiba hau uriaren inguruan zirkunbaldio eratzuna egitea da.

Kontzentrazio honetan Larrabetzu inguruan egiten ari diren beste lan batzuk ere salatu ziren, esaterako, golf zelaia eta hotela.



Argazkia: Iñigo Gaztelu

Gabonetako postalak salgai

Behar Bidasoa izeneko gobernuz kanpoko erakundeak Gabonetako postalak jarri ditu salgai. Postalok ondorengo toki hauetan eros daitezke: Sondikako Nekanereren egunkari saltokian, Derioko Julioeren egunkari saltokian eta Arinka liburu dendan, Zamudioko liburu dendan eta Lezamako Karmentxuren dendan, Josunerenean eta Begotxuren egunkari saltokian. Postalen salneurria 0,60 eurokoa da. Enpresetarako edo partikularrentzako postalak eskatu nahi badira, 944555058 telefono zenbakira deitu beharko da (Argibide gehiago, www.beharbidaso.org web orrian).

KZ gunea zabaldu dabe Zamudion

Herritarrek gaur eguneko teknologi barrien mundura sartzeko asmotan, KZgunea zabaldu dabe Eusko Jaurlaritzak eta Zamudioko Udalak, kontsultorio zaharrean. KZgunearen zerbitzuak dohainik emoten dira goizez edo arratsalde. Bertan ordenagailurik barriak eta begiraleen laguntzagaz, Interneten nabigatu eta hainbat gairi buruzko ikastaro praktikoak egiteko aukera izango da. Beste batzuen artean honeek proposatzen dira: sukaldaritza, bidaiak, kirolak, komunikabideak, etxebizitza, lana, erosketak, banka on-line eta abar. Interesa daukienak bertara joan edo 944522449 telefonora deitu besterik ez daukie.



G **GARAIOLTZA, S.A.**
 ENHERRIAK ERABILTZEAK
LEZAMA
 ETXERRENTZAK, MERKATUETZA-LUKALAK ETA GARAJEAK
 LEHEN MAILAKO ERABILTZEAK, LEHURIK HANIHAK,
 ORDAINTEKIN DIBERTASUN HANDIAK
TF. : 94 455 50 19
 Garaioltza sarea, 128 (Leizaola)
 Lezama (Bizkaia)

LAZKA BAYONA
ILEARPAINDUGIA
 ENHERRIAK ERABILTZEAK
 MERKATUETZA-LUKALAK
 ETXERRENTZAK
 ORDAINTEKIN DIBERTASUN HANDIAK
 BEHAR BIDASOA, S.A. - TEL. 944555058

ZAMUDIOTO MOTOR

94 452 1616
94 452 1648
 Rd. Zamudioto
 Pab. 2 (Zamudioto)
 48911 ZAMUDIOTO
 BIZKAI

2.005-erako kanposantu barria Lezaman

Gaur egun herri gunean kokatuta dagoen kanposantua bertatik ataratzeko asmotan, Lezamako Udalak Santa Mañe bidean dagoen tiro zelaiaren inguruko 11.000 m²-ko lursail batera eroatea onartu dau. Oraingoaren lurre-

tan parke handi bat egiteko asmoa dago, baina egitasmo honek itxaron egin beharko dau, legeak agintzen dauan moduan itxi ta gero, zortzi urte pasatu arte.



Tximintx taldearen txarriboda-bazkaria

Azaroaren 15an izan zen derioztarren txarriboda-bazkaria. Mahaira 60 lagun inguru bildu ziren. Bazkaldu ostean, orain arte egindako lana azaldu zen eta baita epe laburrera dituzten asmoak ere, bazkide berriak egiteko kanpaina adibidez. Tritixta, abesti eta dantzakaz amaitu zen ekitaldia.



Gabonetako irtenaldiak Lezaman

Lezamako Udalak ume eta gazteentzako irtenaldiak antolatu ditu Gabonetan egiteko. Abenduaren 22an, 6tik 11 urte bitarteko umeak patinatzerara joan ahal izango dira goizean. Hurrengo egunean, bolatokira joateko aukera izango dute. Lezaman erroldatuta daudenek 6 euro ordaindu beharko dute; erroldatu gabeez, berriz, 12 euro. Patinatzerara eta bolatokira joateko irtenaldiok 12tik 18 urte bitartekoentzat ere prestatu dira; haiez gainera, antzerkira joateko irtenaldiak ere antolatu dira urte horietakoentzat. Lezamako gazteek 9 euro ordaindu beharko dute; erroldatu gabeez, ostera, 30 euro. Interesatuta daudenek abenduaren 2tik 15era arte eman behar dute izena liburutegian.

Plaza libreak Lezamako ikastaroetan

Lezamako Udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea dagoeneko irekita dago. Eskaintza zabala da: esku lanak, enkajea eta pathwork, joga, zur lantzea, tai ji... Ikastaroak urtarrietik martxora bitartekoak izango dira. Abenduaren 1etik 18ra arte eman behar da izena liburutegian.

Txorierriko korridorearen inaugurazioa atzeratu da

Txorierriko korridorearen azkeneko zatia azaroaren 14an irekitzekoa zen, baina azkenean inaugurazioa atzeratu egin behar izan zen. Antza denez, urriko euriteek eragotzi dute errepidearen zoruak asfaltoa behar bezala hartzea. Diputazioak abenduaren hasieran inauguratzeko ustea dauka.

Maximiano Agirreraren txakolinak onenak Gemikan

Lezamako Maximiano Agirre izan da aurtur Genrikako Azken Asteleheneko azoka ospetsuaren benetako txapelduna, txakolingileen atalean, bereak izan zirelako saritutako txakolin guztiak: zuria, gorria eta baltza.

HIRUKOTE ERREMEDIERIA
 -Hiruakote erremediak: ahotz, elkarrekin, arnasa, elkar, barruko krosak, krosak krosak, krosak krosak, krosak krosak...
 -Tortxu arretzioak: akrobazi, akrobaziak, akrobazi, akrobazi, akrobazi, akrobazi...
 -Akrobaziak eta akrobaziak: akrobaziak, akrobaziak, akrobaziak, akrobaziak...
 -Akrobaziak, akrobaziak, akrobaziak, akrobaziak...

FUNDACION GEMIKO
 Tartearen 100, 28001 Madrid, Espainia
 Telefonoa: 91 111 1111 - Faxa: 91 111 1111

Kudagokotarako Sorletatzea
 Birziklitzeko Zentro Aurreratua

SOGE CAR

Tratamendu legegok
 -Erabilitako oliuak
 -Agortutako taladrinak
 Disolbatzaileak
 Automozio
 hondakinon kudagokota osoa

Torrelarragolti Ind. r/g 40170 Zamudio
 Telefonoa: 844 977 177 - Faxa: 844 577 618

SAN PEDRO

CRISTINA, PILAR, IRATXETA...
 91 111 1111

Literatura Eskola 03

Urriaren 18an hasi zen bihotz bakartien kluba-k Arrekikili euskara elkarteagaz batera antolatu duen Literatura Eskola. Hitzordua goizeko 10etan genuen Larrabetzuko Goikoelexalde auzoko txokoan. Eskolak bertan izatea gura genuen txokoak beheko sua eta sukaldea dituelako, argia delako eta, berritu baino lehen, benetako auzo-eskola zelako, besteak beste. Esan nahi baita, Literatura Eskola aurkeztu genuenean baten baino gehiagotan azpimarratu genuela kutsu akademizista oro baztertu gura genuela, gurea hartu-emanetan oinarritutako eskola izatea gura genuela, elkar elikatzekoa, parte hartzean oinarritutakoa, herritarra. Horregatik aukeratu genuen Goikelexaldeko txokoa eta ez kultur etxea edo Anguleri, baina ezin izan genuen geure nahia bete.

Pizkundea: Aitzol modernitatearen kontra izan zen lehenengo eskolarako aukeratutako gaia.

Iñigo Aranbarri idazleak, gerra aurreko literatur mugimenduari ez eze, mugimendu politikoari eta, oro har, kulturalari buruzko berbaldea egin zigun. Jose Ariztimuño Aitzol-en proiektu politiko-kulturalaren garrantziaz egin zigun berba. Aitzolegaz batera Lauaxeta, Lizardi eta Orixeren lanak eta eragina ere aztertu genituen. Primo de Riveraren diktaduraren ostean euskaldunon kontzientzia berpiztu behar zela pentsatu zuen Aitzolek, eta Euskal Herria egiteko bitartekoa edo tresna egokiena kultura zela, eta kulturaren barruan literatura, eta literaturaren barruan poesia. Erromantizismo alemaniarrean oinarritutako teoria bat hartu zuen aintzat horretarako Aitzolek: teoria horren arabera, herri guztiek berezko esentzia dute, berezko izatea, beste herri guztietatik bereizten dituen eta bakan egiten dituen. Eta Euskal Herriak bazuen hizkuntza bat, munduko beste guztietatik ezberdina zena eta berezia zen hizkuntza horretatik eratorritako kultura eta bizi-legea ere bereizgarriak zituen. Baina nola adierazi berezitasun hori? Poesiaren bitartez. Erromantizismo alemaniarren arabera poesia da herriaren esentzia ondoen jaso eta zabal dezakeena, poetak dira herriaren berezko izaera hitzetara ondoen eraman dezaketanak. Teoria horiek oso errotuta



Aitzolegaz batera Lauaxeta, Lizardi eta Orixeren lanak ere aztertu zituzten BBK-koek.

zeuden Ekialdeko Europako herrietan. Finlandian, esaterako, Kalevala izeneko poema nazionala zuten, euren izaera goratzen zuena. Aitzolek teoria horiek eta Kalevala hartu zituen oinarri bere proiektua martxan jartzeko. Proiektu horren zutabe nagusietarik bat, beraz, poetak ziren, hots, Lizardi, Lauaxeta eta Orixe. Beraz, poesia motore garrantzitsu izan behar zuen proiektu nazional bat hausnartzen ari ginen, literaturak herri bat eraikitzeke izan zezakeen balioaz eztabaidatzen ari ginen... eta gaur egun, poesia baden eztabaidatzen dugu. Orduko hainbat artikuluri

buruz ere aritu ginen, zein eztabaida sutsuak izaten zituzten jakin genuen eta eztabaida horietako asko gaur egungo euskararen eta literaturaren egoeraren iturri izan zirela ohartu ginen.

Konturatzeko ordu biak ziren eta presaka alde egin behar izan genuen. Donostian hitzordua genuen, berriro ere isildu gura gintuzten. Eta guk ezetz.

www.armiarma.com/eskola

Testua eta argazkia: bihotz bakartien kluba

LEANDRO LANBETA

BARACITEGIA-IRDAITTEGIA
Garaile 1 - Tel. 94 42 80 10 - 42 70 14 11 11

Bar TRIPPY

ZUNE GIROK ORELA

Barra bakoitzaren erantzukizuna, orokorrean, erantzukizuna da. Barra bakoitzaren erantzukizuna, orokorrean, erantzukizuna da.

Barra bakoitzaren erantzukizuna, orokorrean, erantzukizuna da.

FMC Forest, S.L.

Zanabolde Foresta
Barra bakoitzaren erantzukizuna, orokorrean, erantzukizuna da.

FMC forest

Elias Amezaga, idazlea

“Artearen apaiza naiz”

Goian, Getxoko Amezaga dorrean, bizi da Elias, bere liburuez inguratuta. 1921eko abuztuaren 9an jaioa, Zuzenbidea ikasi arren, idaztea izan da bere benetako pasioa. Horrela, genero asko landu ditu: antzerkia, saiakera, biografia... Gainera, hainbat egunkaritan, Deia, Egin, eta El Mundon kasu, kolaboratu ere egin du. 61 liburuk osatzen dute bere lana.



Euskal Herriari buruz gehien idatzi duen idazlea da Elias. Guk Sondikan izan dugu, Jorge Oteizari buruzko hitzaldia ematen.

Elias, noiz hasi zinen idazten?

Nire lehendabiziko antzezlan, *Secreto de Confesión*, 14 urte nituela idatzi nuen. Castro Urdialeseko Klaretarrekin ikasten nenbilen garai hartan eta aita Segovia nire idazteko trebetasunaz ohartu zen. Harrezkero, ez diot utzi idazteari.

Antzerkia ez ezik eleberria, saiakera eta biografia, besteak beste, ere landu egin dituzu...

Bai, 14.000 euskal idazleen bizitza eta lana bildu ditut hamar liburukitan. Saiakerak ere egin ditut. Orain hiru proiektu dauzkat esku artean. Lehenengoa Unamunori buruzko saiakera izango da eta bigarrena independentzia eta autodeterminazioari buruzkoa. Aspaldian, Deustuko Unibertsitatean egindako sinposio batean nazionalismoaren gainean berba egin genuen. Gai hau ere berriro hartzea nahiko nuke, interesgarria delakoa bainago.

“Errenazentista eta humanistatzat daukat neure burua”

Baina, zergatik jorratu hainbeste genero?

Errenazentista eta humanistatzat daukadalako neure burua, gizarteari interesatzen zaizkion gaiak jorratu nahi ditudalako,

gai batzuk betierekoak direlako, nahi duguna lantzeko libreak baikara...

Unamuno, Pio Baroja eta Jorge Oteiza euskaldunon inkognita ulertzeko ezinbestekoak direla aipatu zenuen behin. Zergatik?

Unamunok bere buruaren kontrako borroka handia zuelako. Bizi eta bere literatura landu ahal izan zuen herritik alde egin zuelako.

Pio Barojak ez zuelako inorengan sinesten. Bera euskal herritarra zen, euskara ezagutzen zuen, baina ez zen euskaldunak defendatzeko gauza izan. Eta Jorge guraso faxisten semea zelako. Bere burua euskaldun bihurtzeaz gain euskalduna zela buruan sartu behar izan zien gainerako euskaldunei. Azkenean, eskuindarrak geratu dira berarekin...

Mario Ángel Marrodán poetak Elias Amezaga, escritor del pueblo vasco liburua idatzi du. Ados zaude kalifikatzaile honekin?

Marrodán eta biok lagun minak izan arren, ez nago ados nik ez dakidalako euskaraz. Amak bazekien, baina aitarekin ezkondu zen... Aita faxista zen, Primo de Riverarenatariko bat, eta ez ginen euskaraz mintzatzeko etxean. Euskal Herriari buruz gehien idatzi duen idazlea naizela esatea egokiagoa dela uste dut.

Sondikan izan zaitugu Jorge Oteizari buruzko hitzaldia ematen. Nolako zen benetako Jorge?

1948. urtean ezagutu nuen. Izakera gogorreko gizona zen, baita odolberoa eta umore handikoa ere. Gainera, Jorgek ez zuen inoiz lan egin diruagatik, bere buruagatik baizik. Lagunak bere etxera joaten ginen askotan, bertan zer ikasi bagenuelako. Hanka sartzeren bat izanez gero, egundoko errieta egiten zizun. Zentzu horretan, nahiko krudela zen..., baina betiko laguna ere bai. Jorgeri buruzko beste liburu bat argitaratzeko asmoa daukat.

Orain dela gutxi *Conmigo, un cacho de mi vida* liburu autobiografikoa aurkeztu duzu. Nola ikusten du gizona idazleak?

Artearen apaiza naiz, ia nire bizitza osoa erretiroan, idazten edota artxiiboak kontsultatzen eman baitut. Dena dela, ezin naiz kexatu. Oso ezaguna ez naizela? Futbolariak izan ezik, jendeak ez du inor ezagutzen gaur egun. Literaturari ez zaio garrantziarik ematen.

Alemaniatik pala, gitarrarekin eta ...bizikletaz!

Kanpoan ia bi hilabete pasatu eta gero etxera itzuli nintzenean, gogoan dut asko poztu nintzela Euskal Herriko belarraren berdea eta mendiko paisaia gora-beheratsua ikusita. Neure gogoan hurbil sentitu arren, apurka-apurka urruntzen ari ziren Dieskauko auzolandegian hiru astez eginiko egonaldia eta Alemaniako eta Danimarkako alderdi zelaietan zehar beste hainbeste denboraz eginiko bidaia. Aspaldidanik nuen atzerrira bidaia bat egiteko desira, diru gutxi gastatu eta kaleetan musika jotzeko irrika.

Bidaiaren lehen zatia Alemaniako hego-ekialdean dagoen Dieskau herrixkan eman nuen. Eusko Jaurlaritzaren bidez boluntario joan nintzen bertako parke batean lan egitera. Parkea, berez, erdian laku bat zuen basoa zen, paseatzeko bideak zituena. Bertan, kanal sare bat zegoen, zuhaitzek ur faltarik izan ez zezaten. Boluntarioon lana ubide zahar bat sakondu eta zabaltzea zen, era horretako kanal bat irekitzeko.

Proiektu hartako partaideak lau alemaniar, poloniar bi, eslovakiar bat, japoniar bat eta euskaldun bi ginen, guztiok 17tik 26 urtera bitartekoak. Kasualitatea izango zen, baina ia denok geneukan zaletasun artistikoren bat: musika, antzerkia, pintura, arkitektura... Herriko abadearen etxearen gainean geneukan etxebizitza: bi logela, egongela eta sukaldea.

Zortziak aldera altxatzen ginen eta ordu erdi geroago lanean hasi. Arratsaldeak libreak ziren, baina denon artean geure aisialdia antolatzea erabaki genuen: ondoko hiriak bisitatu, lakuan bainatu, arte erakusketaren batera joan, antzerkiren bat ikusi (alemanezkoak ziren eta ez nuen zipitzik ulertu), Halle hirian parrandaren bat egin...

Lana irailaren 6an bukatu genuen. Bakoitza bere etxera bueltatu zen, baina nik oraindik Alemania osoa nuen ikusi

“Leipzig, Hamburg, Kopenhage eta beste hiri batzuetako kale turistikoetan musika jo genuen dirua lortzeko”

gabe, eta Berlinera abiatu nintzen, Angel nire lagunaren bila, gure tour partikularrari ekiteko.

Berlinen hasi eta Ulm hirian bukatu genuen. Tartean, Leipzig, Rügen irla, Hamburg, Kopenhage, Bremen, Trier, Heidelberg, Saarbrücken... eta beste hiri batzuk bisitatu genituen. Hango kale turistikoetan musika jotzen genuen dirua lortzeko. Bizikletaz lau ibilaldi ere egin genituen: Spree, Saar eta Mosel ibaietan zehar eta Oihan Beltzean barna, hain zuzen. Bizikletaz gain, Inter-Rail tiketa geneukan trenez ibiltzeko.


Ahalik eta diru gutxien gastatu nahi genuenez, lagun edo ezagunen etxeetan, tren geltokietan, basoetan eta behin komun publiko batean ere egin genuen lo. Normalean ogia, zerealak, barazkiak eta zuhaitzetatik hartzen genituen fruituak jaten genituen.



Beñat eta Angel Alemaniako Oihan Beltzean.

Askok zoratuta nagoela esan didate, baina uste dut merezi duela horrelako bidaia bat egitea bizitzan behin.

Testua eta argazkia: Beñat Aiertza



J. ELORRIAGA
 Herriko Iner-Bizkaia Herrikoak elorri
 BILBOA, 1
 TEL. 41 433 00 41
 1980-1981



ALBERTO
 Euzko Herriko Iner-Bizkaia, 1
 Tel. 41 433 00 41
 1980-1981



LAUBURU
 Herriko Iner-Bizkaia, 1
 TEL. 41 433 00 41

Ane Barrenetxea * Produktu Mekanikoen Garapenaren ikaslea

“Hegazkinetako piezak diseinatzea gustatuko litzaidake”

Bera ez da Txorierrikoa, baina autobusa hartzen du egunero Derioko Politeknikara etortzeko. Horrela, bada, Sopelako 19 urteko neska hau Produktu Mekanikoen Garapena (PMG) ikasten dabil bertan. Nahiz eta gaur egungo mutilek eta neskek hezkuntza berdina jaso, halako ikasketetan neskek ikustea nahiko arraroa da oraindik. Anek eta berarekin ikasten duten neskek aurrekaria ezarriko ahal dute!



Ane, azal iezaguzu zer diren ikasketa horiek.

Uf! Zaila da azaltzen, baina saiaturik naiz adibide bat jarritz. Kotxe bateko atea egiteko pausu batzuei jarraitu behar zaie. Orduan, pausu horietako trokela edo plano diseinatzea izango litzateke gure lana, gero beste batek atea egin dezan.

Halako ikasketetan neska gutxi daude, zergatik erabaki zenuen zuk PMG ikastea?

Arraroa da, ezta? Marrazketa tekniko eta ordenadorean diseinatzea gustoko ditut. Gainera, diseinuko kurtso batzuk ere egin ditut. Horrexegatik, lanbide hau niretzat aproposa dela uste dut.

Zenbat ikasle zarete klasean?

24 lagun gaude eta gutariko lau neskek gara. Iaz, berriz, neska bakarra izan omen zen klasean. Mutilek oso ondo hartzen gaituzte. Jende jatorra da.

Pozik, orduan...

Lehenengo urratsean nago eta klaseak hasi baino ez dira egin, baina poz-pez nago. Hala ere, dena berria denez gauza batzuk zailak suertatzen zaizkit, planoak ikustea esate baterako.

Lana topatzeko oztoporik izango duzula uste duzu?

Espero dezagun ezetz! Gure arloan aurrerapen handiak eman dira eta langile askok ez dituzte guk ikasten ditugun metodo berriak ezagutzen. Hori dela eta, ikasketak hauek lan-eskaera handia dute. Beste alde batetik, ez dakit mutil batek baino oztopo gehiago izango dudan lana topatzeko. Enpresa bakoitzak bere printzipioak izango ditu... Nik emakumeak zein gizonak dauzkan enpresa bat ezagutzen dut, emakumeak pozik omen daude... Beno, nik lanbide honetan aritzeko itxaropena daukat.

Eta etorkizunari begira, zer egitea gustatuko litzaizuke?

Hegazkinetako piezak diseinatzea gustatuko litzaidake. Dena dela, hizkuntza ere faktore inportantea da eta kontuan hartu behar izango dut. Gure lanbiderako ingelese eta alemana ezibesteak badira ere, lehena hegazkinekin lan egiteko eskatzen da gehien bat eta alemana, ordea, kotxeekin aritzeko. Gaur egun jende gehienak ingelese dakienez automozio-merkatuan sartzeko aukera gehiago egon daitezkeela pentsatzen dut. Hizkuntza biak ikasten nabil momentuz... Gero, gerokoak!

Ikasketak alde batera utzita, txistua eta trikitixa jotzen dituzula esan digute...

Bai, orain dela gutxi trikitixa jotzen hasi naiz, baina urte batzuk daramatzat Sopelako Barinatxe txistu taldearekin kale-jirak egiten. Euskal instrumentuak zein kirola izugarri gustatzen zaizkit.

Kirola ere praktikatzen duzu?

Bai, lagun bat eta biok zesta-puntan aritzen gara eta Gernikako Jai-Alaikoek esan digute eskolan sartzeko. Beste alde batetik, neskeen taldea omen dago Gasteizen eta partiduren bat euren kontra jokatzea proposatu ere egin digute. Erabakirik ez dugu hartu oraindik, baina udan izatea gustatuko litzaizuke.

Baduzu astirik hainbeste gauza egiteko?

Gauza asko izan arren, zure gustukoak badira holakoak egiteko astia beti topatzen duzu. Nik klaseko lana egunean eramaten dudanez asteburuetan lagunekin egoteko astia daukat, baita txistua eta trikitixa jotzeko edota kirola praktikatzeko ere.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Txorierritik VII. euskararen eguna ospatzen du

Testua eta argazkiak: Lurdes Lasuen

Azken urteotan Txorierriko euskaltzaleen artean ohiko egin den jaiak aurton ere bere presentzia izango du Zamudion, azaroaren 29an, zapatuan, eta abenduaren 3an.

Jai horren helburu nagusia Txorierriko euskararen normalizazioaren alde egiten ari garen lanaren beste urrats bat ematea da. Txorierriko haurrek, gehienek behintzat, "D" ereduari ikasten dute eta helduentzat bi euskaltegi daukagu: "Txepetxa Euskaltegia" eta "Txorierriko Udal Euskaltegia". Azken estatistiken arabera Txorierrin euskararen ezagutza gero eta altuagoa bada ere, ezagutza hori ez da kaleko erabileran islatzen.. Zergatik txorierritarrek ez dute beren eguneroko bizitzan euskara gehiago erabiltzen? Galdera hori

plazaratzen dugunean jasotzen dugun erantzunik ohikoena ohitura faltagatik dela da. Pertsona ezezagun batengana hurbildu eta berarekin hitz egin behar dugunean errazagoa omen da gaztelerara jotzea euskarara baino, eta pertsona horrek euskaraz dakiela ohartzen garenerako ohitu gara gazteleraz hitz egiten eta zaila omen da euskarara aldatzea. Beraz, ohitura horiei aurre egiteko eta giro euskaldun batean jolastu, dantzatu, kaletik ibili, mahai-inguruetan parte hartu, ... eta egiteko antolatzen ditugu euskararen egunak Txorierrin.



Tailerrak 1999. urteko euskararen eguna Larrabetzun



Halako mozerroak egin zituzten Larrabetzuko umeek tailerretan

Txorierriko Mankomunitateko Euskara zerbitzua, Zamudioko Udalarekin eta herriko zenbait talde kulturalen laguntzarekin, heldu eta gazteen parte hartzea eragingo dituen ekitaldiak prestatze lanetan aritu da. Lan horren emaitza honako hau da:

- **Azaroaren 29an, zapatuan**, egun osoarako ekitaldiak antolatu dira. Goizean goiz hasita kalejira bat egingo da Zamudion zehar herriko dantza talde eta BERTOKO soinu taldearen animazioagaz bat eginik; **11:30etan** esku lanen tailerrak egongo dira frontoian eta horren ostean ERIZ magoa. Bitartean, **eguerdiko 12etan**, "Txorierriko enpresetan euskaraz" izenburupean antolatutako mahai-ingurua izango da Zamudio dorreko hitzaldi aretoan; berton Txorierrin euskara-plana martxan daukaten enpresetako ordezkariak euren emaitzen edota egitasmoen berri ekarriko dute gure artera. **Arratsaldeko 16:30etan** Zamudioko pilota eskolako gazteek pilota partidua eskainiko digute. Pilotariekin batera bertsolariak ere arituko zazkigu pilotarien jokaldien berri emanez. Partidu ostean, **18:30etan** Txotxongiloak Zamudio dorrean eta eguna amaitzeko herriko plazan musika taldearekin agur esango diogu egunari.

- **Abenduaren 3an**, eta euskararen nazioarteko egunarenekin bat eginik, eskolen arteko jaia egingo da. **Goizeko 10etatik 12etara** Zamudio gaztez beteta ikusteko asmoa dugu, asko baitira Txorierriko eskoletan "D" ereduari matrikulaturik dauden haur eta gazteak. Ekintzei dagokienez: Haur hezkuntzakoentzat Azkona Taldea – Polikiroldegian; Lehen ziklokoentzat KULKIren arrantzaileen jolas eta jokoak – Eskoletan; Bigarren ziklokoentzat tailerrak "kometak" - Zamudio dorrearen inguruan; Hirugarren ziklokoentzat KARAOKEA – Frontoian.

Txorierriko Mankomunitateko Euskara zerbitzutik egunotan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuet.

EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2003

ZAMUDION

AZAROAREN 29an

10:30 KALEJIRA Zamudioko DANTZA TALDEA eta
BERTOKORekin

11:30 TAILERRAK FRONTOIAN

12: MAHAI-INGURUA Zamudio dorreko hitzaldi ardoan
"TXORIERRIKO ENPRESETAN EUSKARAZ"

13:00 ERIZ MAGOA-FRONTOLAN


16:30 BERTSOLARIAK eta PILOTARIAK Zamudioko
PILOTA ESKOLAKOekin

18:30 TXOTXONGILOAK: "Kutxoren pantomiman"
ZAMUDIO DORREKO hitzaldi gelan

19:30 MUSIKA TALDEA - PLAZAN



Teatro de la Universidad del País Vasco



Eraikin baten historia



Gaur eguneko Seminarioak orain dala 60, 30 edo 10 urte egoanaren alboan antz haundirik ez dauka. Berbera da, hori bai, baina izaki bizidunen antzera eten barik eraldatzen joan da. Aro barrietara ondo baino hobeto egokitu da, zalantzarik ez. Garai bateko Seminarioa ezagutu genduanok hainbeste aldaketa ikusita sentidu daikegun tristezia apur hori soberan estaltzen da gaur egun Bizkaiko eraikin handienak (halan uste dot) agertzen deuskun arpegi bizi, dinamiko honegaz. Oraingo jendetzak, beronen joan-etorriak, sortutako jarduera-mailak eta, zelan ez, trafikoak, zerikusi gitxi dauka garai bateko Seminarioak aurkezten euskun giro lasaiagaz. Deriotik zein Zamudiotik paisaiari begirada bat emonda, Seminarioaren presentzia erraldoi, erreferentzialagaz topo egiten dogu ezinbestez.

Seminarioaren bizitzaren ganeko irizkiak eta gorabeherak jasotzeko hainbat iturritara jo dogu. Lehenengoz, Bizkaiko Eleizbarrutira jo dogu, bera dalako ugazaba eta arduradun nagusia. Gaur egun seminarioan dagoan business center-aren gestioan dabilen Iñaki Santamaríagaz eta Seminarioaren lehenengo pausuen lekukoa dan Carmelo Peña derioztarragaz be egon gara. Iturri honeek esandakoari jaramon eginda, lau etapa bereiztu daikeguz:

1930-1950: zoroetxea izateko sortua

Seminarioa sortzeko ekimena orduko Foru Aldundiarena izan zan. Sasoi haretan zoroetxe edo osasun-zentro handi baten beharra egoan, eta, hasikeran Zamudion egitekoa bazan be, Derioko lursailok auke-

ratu ebazan Foru Aldundiak horretarako. Zoroetxea edo inguruko baserritarrek manikomio deituten eben hori egitea zan lehenengo asmoa.

Lau eraikinez osotutako proiektu hau aurrera eroateak lur horreetan egozan hainbat baserri desagertzea ekarri eban, Telleri, Goiri, Larrauri edo Exane izeneko baserriak, besteak beste.

1.000 ohe inguru batuko zituan osasun-zentroaren proiektuak, barriz, makina bat atzerapen eta arazo euki eban, hasi barritan jausi be egin zala kontuan hartuta. 1933 urtean gertatutako ezbehar honen ondorioz proiektua gelditu egin zan behin-behinean.

Arazoak arazo, hurrengo 2-3 urteetan lau eraikinen oinarritzko egitura amaitu

egin zan, baina 1936an gerra zibila ganean egoala proiektua eten egin zan. Gerra zibilak iraun bitartean, Seminarioa izango zanak funtzio garrantzitsua bete eban, bonbardaketa askoren helburu zalarik. Berton, Eusko Jaurlaritzak ejertzitoaren biltoki eta gordelekuetako bat euki eban, eta Espainiako ejertzito errepublikarrak be bai.

Gerra zibila amaitzean, orduko egoera negargarriak ezinezkoa egin eban zoroetxearen proiektuagaz jarraitzea, eta inguruko baserritarrek manikomio izenagaz bateatutakoa, beraz, bertan behera itxi zan.

1940tik aurrera eginda egozan lau eraikinen beheko pisuek hainbat aktibidade gorde ebezan, diputazioko gortak, Elkoro Tailerrak -bizikleten piñoiak egiteko -, armen fabrikazioa (La Esperanza), besteak beste.

**“Inaugurazina
Madrileko Morcillo
Gotzain Nagusia
etorri zan Seminarioko
lurren jabetzagaz
(Derio ala Zamudio?)
hankasartze polemikoa
eukalarik”**

Orduan egindako eraikin honeek beste modu batez aprobetxetako ahalegin barri bat agertu zan: 704 pisu edo etxebizitza egitea.

Madrileko Coromina, S.A. enpresa izan zan etxebizitza honeek egiteko arduraduna eta baita egin be, baina bakarra, pisu pilotoa. Gaur egun, Bilbolamp enpresa dagoan lekuan egin eben pisu hori. Baina hau egin eta gero, proiektu hau be gelditu egin zan.

Zergatik? Erantzuna, antza, Madriletik etorren.

Nahiko sinplea eta egiazkoa dan erantzuna emongo deusuet: Francisco Francori esker.*

Sinpleegia bada be, neurri handi baten holan izan zan.

1951-1970: abadegintza urteak

40ko hamarkadaren amaieran Foru Aldundiak eta Bizkaiko Eleizbarrutiak Derioko lur honeen ganeko negoziazio batzuk hasi ebezan, foru-jabetzapeko lau eraikinen eta inguruko lurren gozarena eleizbarrutiari itxiteko, bertan bere egoitza egin eian.

*Francorenak bere esplikazioa dauka: gerra amaituta, Bizkaiko eta Gipuzkoako



1949. urtean futboleko aritzen zan seminarioren alboko zelaietan.

lurraldeak traidoretzat joak izan ziran Madriletik. Bestalde, ordurarte, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak eleizbarruti bakarra osotzen eben, Gasteizkoa, eta hau banatzea pentsatu zan, Araba leiala eta lurralde traidoreak eleizbarruti ezbardinetan sartuz. Ondorioz, eleizbarruti barri horri egoitza egonkor bat bilatu behar izan jakon. Non? Derion.

Beraz, jatorri neurri baten politikoa euki eban ekimen barri bati heldu eta 1951n, lurren eta eraikinen eskualdatzeari ekin jakon, eleizaren aldetik bertoko eraikinen hobetze eta mantenimendurako konpromisoa hartu zalarik. Ganera, esan behar da, Bizkaiko eleizbarrutiak inguruko beste lur batzuk erosi zituala, gaur egun institutua, LHko zentroa eta autobidearen inguruan dagozanak.

Ordutik aurrera, Seminarioa egiteko proiektua martxan jarri zan, Seminario Nagusia eta Seminario Txikia.

Inaugurazina Madrileko Morcillo Gotzain Nagusia etorri zan Seminarioko lurren jabetzagaz (Derio ala Zamudio?) hankasartze polemikoa eukalarik.

Hasikerako proiektuko lau eraikinetatik aurreko biak amaitu ziran, erdian dorre haundi eginez. Bi eraikin horreetan abadeentzako erresidentzia, ikasketa bereziak egiteko tokia eta abadeen arteko nazioarteko lankidetzaren zentroa kokatuz.

Aurreko Seminario Txikia 1952an hasi zan lanean. 10-11 urteko hamaika mutil joan zan bertora abade izateko prestakuntza eta ikasketak egitera.

1955ean Seminario Nagusia sortzen da, abade ordenatu barriei Filosofia eta Teologia arloetan goi-mailako prestakuntza eskeintzeko asmoz.

50 hamarkadaren amaiera eta 60 hamarkadaren hasikerea izango dira, zalantza barik, oparoenak abadegintzan. Alde batetik, abade edo seminarista asko

ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA

10 URTEKO BERRA, PROTEIN GIETAN GRADI GARRIAK

ARTEAGA

KOMERZIO- BERRA

Artzainak Derioko Seminarioa

DERIO

Telefonoa: 94 454 51 47


ERROREZ GORRI.

24 orduko zerbitzu teknikoak.

10:00ak - 13:00ora

16:00ak - 20:00ora

Ingurumeneko 100%ko 1-1499



“Biziakoa gure lekuakoa”



Txorierriko askok Seminarioan ikasi eben.

egozan, eta bestalde, eleizbarrutiko hainbat erakunde berton kokatu ziran, eleiz-artxibategia, eleiz-ikastegia, Labayru ikastegia, eleiz-liburutegia, besteak beste. Urte oparoak ziran abadegintzan, baina 60 hamakadaren amaierarako gainbehera etorriko zen.

1970-1993: ikastetxeak

60ko hamarkadaren amaieran abade-tza jarduerak gitxituz joan ziran Seminarioan, aldi berean irakaskuntza arloko zentro modura indartuz.

Urteotan, Seminario Nagusia Bilbora eroan eben eta 1974tik aurrera behin betiko itxiten da abadegintza, irakaskuntza esparruko eginkizunetan sakonduz.

“50 hamarkadaren amaiera eta 60 hamarkadaren hasikerea izan ziren, zalantza barik, oparoenak abadegintzan”

Resurrección María de Azkue ikastetxearen garaia da, Lanbide Heziketako zentroa, Magisteritza Eskola eta Asbibe elbarrientzako zentroa be hor egozan. Labayru ikastegia, eleiz-artxibategia eta liburutegia ere hor mantendu ziran.

Gainbehera urteak doguz honeek, Seminarioa Foru Aldundiaren jabetzapekoa izanda, eta gozamina eleizbarrutiak eukanez, inbertsio gitxi egin ziralako.

Gaur eguneko 30-40 urteko txorierritar eta bizkaitar askorentzat honeek izan ziran seminarioa parajetik ezagutzeko urterik onenak. Eskola urteak ziran, externo eta internoak, bertoko langileekaz komeriak (¿?) , Los Ríos-eko misioetako berriak, astean behin egindako baraualdiak tortilla bokadillo zoragarriak genduzala, irakasle historikoak, tikia, berton sartzeko asteburuko probak, prokura...

Baina beste eskolen konpetentzia zalanta edo Seminarioan ideia berriak garatu behar ziralako, 90 hamarkadaren hasieran Eleizbarrutiko gai ekonomikoen Kontseiluak Plan Estrategikoa landu eban Seminarioaren etorkizuna zehazteko. Jarraipen batzorde bat osotu zan baita eginkizun-gida bat ezarri be etorkizuneko erronkak ondo kudeatzeko.

Ordurako Seminarioaren jabetzaren

“Eleizbarrutian landutako Plan Estrategikoa Seminarioan enpresa elkartegi bat sortzea proposatu zan”

ganeko arazoa konponduta egoan, eraikina eta inguruko lur batzuen arteko trukearen bitartez. Hau da, Foru Aldundiarena ziran eraikinak (amaitua eta amaitubakoak) eta kirolguneak eleizbarrutiak eskuratu zituan, eta trukean, 50eko hamarkadan eleizbarrutiak erositako lurraz (instituto, autobide ingurukoak) Foru Aldundia geratu zan.

Eleizbarrutian landutako Plan Estrategikoa Seminarioan enpresa elkartegi bat sortzea proposatu zan, enpresak berton ezartzeko irizpide batzuk azpimarratuz: Seminarioko gela, toki eta bulegoak errentan emotea, ez saltzea; eraikinak tradizioz euki dituan erabilera historikoei jarraitzea, hezkuntza, kultura, ikerketa arlotan; negozio-ideia osagarriei atea zabaltzea, ostalaritza, residentziala; jarduera ezbardinen artean orekak bilatzea, sinergiak sortzea; errentarien lankidetzat, eraikinaren erabarritzean lagunduz, trukean epe luzeko errenta interesgarriak eskeiniz.

1993-2003: enpresa elkartegi

1993an hasi zan gaurko egunerarte Seminarioak ezagutu dauan azken itxura aldaketa. Urte horretan Resurrección María de Azkue ikastetxea Bilbora joan zan, LHko zentro barria egin zan, eta Seminarioa neurri baten hutsik lotu zan.

Unai Elorriaga
“Elorriaga Unai” herri bat euskal literaturan”

Abenduaren 2an, eguzkiaren arratsaldean Bilbon
 Literaturan

18:00
 19:00
 20:00

zomedia ezkerretan?
 leba eci

TOLDOS ZAMUDIO S.L.

- Taldosak valde eta dibertza
- Taldosak langende eta ipintze
- Giza taldosak mantentze lanak

Estatu aurrekontu iragarriko barri

Pol. Torrelarragoiti P-2 A-1
 48170 Zamudio (Bizkaia)
Tele. 94 452 35 85

XV TENETXE, S.A.

MANAGAREN SA BENTA ETA KONPOSATZA
 BIZKAIA - LEIZARRAN

ENBRESKATZA JARDURA

Arakale, 45	Arakale, 47
Pol. 24. gortia	Leizaola, 11
Leizaola, 11	Leizaola, 11
Arakale, 45 (Bilbao)	Arakale, 45



1995ean atzeko bi eraikinak bota ziran, beteten eben lekuari beste erabilera batzuk emoteko eta inguru hori garbitzeko.

1993an, Txoko Ona jatetxea zabaldu zan lehengo jantokien lekua betez.

Gero, urteakaz asko izan dira bertan kokatu gurean etorri diran enpresak. Eleizbarrutiak zehaztutako ildo nagusiak bermatzeko soziedade bat sortu zan eraikinaren antolaketa eta gestinoa bide onetik eroateko, Administradora de Inmueble Seminario izenekoa.

Enpresak batzeko leku aproposa, ondo komunikatua, tamaina haundikoa eta inguru apartan, gaur egun esan daikegu Seminarioa osasuntsu dabilela, bizirik dagoela.

Gaur egun tokien %70 beteta badago be, hasieran gauzak ez ziran hain errezak



1995ean Seminarioaren atzeko bi eraikinak bota ziran.

izan. Barriztatzeko lanak, azpiegiturren egokitzapena, ura, argindarra, bestelako hornizioak egokitzeak lan eta gastu haundia ekarri eban. Zelan aurre egin erronka honeri?

Epe luzeko estrategia bat eroanez, apurka-apurka Seminarioa betez eta errentarien kolaborazioagaz. Jasotako errentakaz barriztatzeko joan da eraikina, oraindik lan polita egiteko badago be.

1995-96an kirolguneak barriztatu eta errentan itxiten ziran. Orduetik hona, golfa, gimnasio, paddle zerbitzuak dagoz; Loyola Indautxu futbol taldea be hor dabil; Euskadi Txirringintza Fundazioa 1998an bertora etorri zan

1997-98an enpresarik deigarriena ezarri zan, Andrea Hotela, gaur egun 100 logela eta 3 pisu betetzen dituana.

Ikasleentzako erresidentzia, Marketing Institutua, Enbor Didaktikoak argitaletxea, Bilbolamp, Colchonería Arteaga., eta abal luze batek osotzen dau Seminarioan gaur dagoan enpresa elkartegia. Ezarri diran enpresa gehienek hor jarraitzen dabe, eta joandako apurren artean, Johan Cruyff Gestio Eskola eta Idazkaritza eta Turismo Eskola aipatu behar dira.

2003-¿?: erronkak

Seminarioaren gestioan dabilen Iñaki Santamariaren esanetan hemetik aurrera gauza asko dagoz egiteko. Inguruetako

“Seminarioaren proiektzioa gizarteari begira zabaltzea da datozen urteetako erronka”

azpiegiturak barriztatu, aparkaleku barriak egin (joan zaitezte eta konprobatu lanegun normal batean zenbat auto dagozan), eraikinaren toki batzuk barriztu eta urbanizazioa hobetu.

Datozen urteei begira, honeexek dira erronka nagusiak:

-Eraikinaren tokien betetze-maila haunditzea, %80-85 lortu eta mantentzea.

-Seminarioaren proiektzioa gizarteari begira zabaltzea, eten barik hasiz.

Artikulu honen bidez ezagutu dozuna gustokoa izan badozu, laster kaleratuko da Seminarioari buruzko liburu bat, eta bertan, detaile guztiakaz jakin ahal izango dozu Bizkaiko eraikinik haundienaren historia eta istorioak. Badakizu.

Testua: Fernando Larrondo
Argazkiak: Fernando Larrondo eta Jose Luis Solet



60ko hamarkadaren amaieran abadetza jarduerak gixxituz joan ziran.



HEZKUNTZA ERKUNTZA

HEZKETA ZIKLOAK

<p>HEZKUNTZA ERKUNTZA</p> <p>HEZKUNTZA</p> <p>Adierazleak: 2.000 urte</p> <p>-PROIEKTU-ERKUNTZA GELAKOAK</p> <p>Oraindik: +2.000 urte</p> <p>-HEZKUNTZA ERKUNTZA</p> <p>Oraindik: +2.000 urte</p> <p>HEZKETA</p> <p>-HEZKETA ERKUNTZA</p> <p>Oraindik: 1.400 urte</p>	<p>HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>-HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>Oraindik: 2.000 urte</p> <p>-HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>Oraindik: 2.000 urte</p> <p>HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>HEZKETA ZIKLOAK</p> <p>Oraindik: 1.400 urte</p>
---	--

BATELORITZA

BATELORITZA

Mikel Zarateren omenezko CD-ROMa, Proiektu baten kronika


Urtarrilean Mikel Zarateren omenaldia abiatuko da. Egingo diren ekitaldi, liburu eta beste hainbat ekintzaren artean, CD-ROM bat ere kaleratuko da. Hurrengo lerroetan zenbait datu jarriko ditut zuen eskura, egitasmo hori zelan joan den gatzatzen.

Bada urte bat baino gehiago proiektu hau hasi zela eta bere amaierara heltzen ari da. Hasieran, abesti bakarra grabatu beharra geneukan, hots, Mikel Zarateren omenezko kanta. Alde batetik, alaia izan behar zuen, pozgarria zelako Mikel gogoratzea, baina bestalde, tristura igorri behar zuen, Mikel gure artean ez dagoelako.

Horrela abiatu nintzen, Mikelek esaten zuen moduan "dakigunetik ez dakigunera". Egin behar nuena arras zaila zen, sentitzen nuena abesti bihurtzea hain zuzen. Horrela, hilabete batean, kanta munduratu zen. Gero, Gorka Zaraterekin hitz egin genuen berak letra egiteko, eta gustura egingo zuela erantzun zigun. Ikusiko duzue, baina Mikelen lobak letra zoragarria eta ezin egokiagoa egin du.

Egunak bazetozen eta bazihoazen, proiektua geroz eta indar gehiago hartzen ari zen, eta orduan, Mikelenaz at beste abesti bat grabatzea erabaki genuen. Ez zeukan Mikelekin zerikusi zuzenik, baina bai bere herriarekin harremana. Abestia Gaztelumendi izango zen, lezamarrontzako toki oso esanguratsua. Gehienok jakingo duzuen legez, bertan borroka zeharo latzak izan ziren gerra denboran. Abestia oso erritmikoa eta iluna da, egokia bertan egongo bazina bezala sentitzeko.

Abestiak konposatu ondoren, musikiariak, abeslariak, etab. bilatzen hasi ginen. Musikariaren artean gustatuko litzaidake nabarmentzea Leire Iturrioz pianista, Beñat Aiartza flautista, Iñaki Aretxabaleta biolinista, Aintzira Gorosabel perkusio jolea, Nuska Corria Kataluniako flautista eta



Asier Ercillak aholku batzuk ematen dizkio Anje Duhalderi

Kepa Junkerak zuzentzen dituen ETXAK taldeko txalapartariak. Abeslariak dagokionez, lau profesional aukeratu genituen, Aiora Renteria (Zea Mays), Natxo de Felipe (Oskorri), Anje Duhalde eta Mikel Markez.

Horrelaxe, urria heldu zen eta grabatzen hasi ginen Arantzazuko Balea Musika Ideiak estudioan. Urriaren 8tik 17ra arte grabatzen egon eta gero, zin dagit emaitza benetan bikaina izango dela. Momentu honetan nahasketak egiten ari gara eta hemendik gutxira lana bukatua egongo da. Musikarekin batera, making off bat joango da, Begoña Vicariok koordinatua. Irudi-

muntaia benetan zoragarri geratu da, zinez hunkigarria.

Jakin ezazue laster Zorritzketanen webgunean informazio gehiago izango duzuela proiektu honi eta beste guztiei buruz. Besterik gabe, gogoratu lau abestiz osatutako CD-ROM eder hau lerrook irakurtzen dituzuegerako kalean egongo dela. Ziur nago harrera ona egingo diozuen. "Nire eskutik zuen bihotzera, dakigunetik ez dakigunera..."

Testua eta argazkiak: Gaizka Peñafiel

**Aikor!-ek gabonetako
loteria dauka
09.862
Txorierriko taberna eta
komertzioetan**

Esperantzazuzenak
Festival
Plaza Irakleasantak
Kuzantza arantzazuko herria
Arantzazuko herria, 1
48740 Zuzenak
www.azkor.com

Yeratik irratia
CRAZY GUITAR
Zuzenak

Derioko Lainomendi dantza taldeko mutil nagusiak

Nagusitan dantzari



Ez dira plaza askotan ibilitakoak. Derion, Basauriko Dantzari Egunean, ezkontzaren bat. Oraindino ez dute euren burua prestatuta ikusten beste herriko jaietara dantzari joateko. Baina dantzariak dira. Mutil nagusien taldea osatzen dute Derioko Lainomendin. Gauza batek bereizten ditu, mundu horretako rara avis-ak dira. Zein da berezitasuna? Beti gertatzen denaren kontra, nagusi egin eta gero erabaki dutela dantzari izatea.

Unai eta Aritz derioztarrak, 22 eta 26 urtekoak. Andoni, 23 urte, Bilbon bizi den derioztarra. Ellande eta Borja bilbotarrak, 23 eta 28 urtekoak. Julen, 24 urte, Oier, 28 urte, eta Gorka, 26 urte; hirurak Mungia-koak. Dantzan hasi zirenetik bigarren urtea da hau.

Zelan otu zaizue dantza talde bat osatzea?

- Gu hiruroi entzerrona egin euskuen. Deriotik genbiltzan eta taldeko neska batzuk esan euskuen "Etorri frontoira, giro ona dau ta". Heldu eta beste 5 neska gugana heldu, inguratu eta "Apuntatu egin behar zarie, mutilak behar doguz, probatu konprometuz barik", eta halan hasi ginan.

- Nik hemengo monitorea laguna dot, berak esan eustan jende majoa dagoela eta zeozor ikasteko.

- Lagunak nituen, mutilak faltan ziren, esan zidaten eta gustura hartu nuen proposamena.

- Nire kasua be apur bat entzerrona be bazan, zeren jota eta arin-arin ikastera etorri eta hori irakatsi beharrean beste dantza batzuk irakatsi euskuezan hasieran, eta bestea atzeratu urtea amaitu arte.

- Esan euskuen denbora labur baterako zala, baina begitu, hemen gaude ondino.

Asko kosta zaizue ikastea?

- Pentsa, ni pelotaria naiz, beste hau errugbilaria, bestea futbolaria, igerilaria bestea. Asko igartzen da txikitan ez dugula dantzarik egin.

- Gure gorputzak eginda dagoz, ni ez naiz batere elastikoa, eta gainera erritmoa eta hori, ez dakigu zer dan. Esaten deuskue "Erritmoak markaten deustu eroan behar dozun abiadura", baina gu...

- Dana dala, hobetzen goaz denboragaz.

- Nik oso baldar ikusi nuen neure burua. Orain azkarrago ikasten dugu eta nabaritzen da. Pauso batzuk hartzea gehiago kostatzen da, baina besteak gutxi gorabehera antzekoak diranez, errazago egiten da, hasieran baino hobeto.

- Errepertorioa hartzen goaz: dantzari dantzako 5 dantza, korru dantza batzuk: jota, arin-arin. Ttuntun, sorgindantza. Eskilafraile. Balsak.

Jarraitzeko prest?

- Bai, giroa oso ona da, horregatik gagozala uste dot, oinarria hori da, egiten doguzan barreak, eta dantza osteko poteoa. Amaitu ostean beti juntetan gara 10 lagun inguru, trago batzuk Deriotik eta gero afariak batzutan. Irteera bi be egin doguz.

Ez da txarra daukaten plana. Ostiralero ordu eta erdiko entseia, dantzak ikasi lagun arteko giro euskaldunean, eta gero datorrena datorrela. Animatzen denak badaki.

Testua eta argazkia: J.A. Mentxaka

Larrabetzuko produktuen azoka

Larrabetzuko Euskara Taldeak, lehenengoz, 1999an antolatu zuen Bertoko Produktuen Azoka, Txorierriko Euskararen Eguneko egitarauaren barruan. Harrezkero, Arrekikili euskara elkarteak urtero sartu du bere plangintzaren barruan azoka hau, betiere helburu nagusia hizkuntzaren transmisioa izanik.

Larrabetzuri 1999an egokitu zitzaion Txorierriko Euskararen Eguna antolatzea. Larrabetzuko Euskara Taldea orduantxe hasi zen lehenengo pausoak egiten, eta Bertoko Produktuen Azoka antolatzea bururatu zitzaion. Argitu beharra dago, "bertoko produktuak" aipatzen denean, Larrabetzukoak esan nahi dela.

Sasoi hartan Larrabetzuko Euskara Taldea zena Arrekikili euskara elkarteak gaur egun, eta berau arduratzen da urtero azokaren antolaketaz.

Lehen esan dugun bezala, azoka honetan Larrabetzun bertan hazitako produktuak izaten dira. Azokaren helburu nagusia huraxe da, geure herrian hazitako produktuak kaleratzea, eta herritarrei geure herrian bertan, urrunera joan barik, kalitatezko produktuak eros daitezkeela erakustea.

Egun honetan aurki daitezkeen produktuen zerrenda ez da, ez, laburra: ortuariak, txakolina, arrautzak, eztiak, ogia, bizkotxoak, gailetak... Haiez gainera, talo gozo-gozoak ere aipatu behar dira, izan ere, eurok laguntzen digute egun horretako gastuak ordaintzen.

Parte hartzeari dagokionez, inoiz ez da berdina izaten. Kopurua zeruak berak mugatzen du. Orain arte 20-25 baserri edo etxe etorri badira ere, aurtengo parte hartzea eskasena izan da alde horretatik, 13 baino ez dira etorri eta. Zeruak mugatzen duela esan dugu, eguraldiak eragin handia izaten duelako. Eguraldiak markatzen du lurra ematen duena, eta aurtengo sikateak eta harriak nahikoa baldintzatu dute azokako parte hartzaileen kopurua.



Familiarekin eta lagunekin elkartzeko eguna izaten da azoka.

Eskulangileek ere tokia izaten dute azoka honetan. Orain urte batzuk Bersoako Juan albokagilea ikusteko aukera izan genuen, eta aurtengo aipatzeko modukoa izan da egurra lantzen duen Inhar Galarza gaztearen trebezia, jendea harrিতuta utzi du eta.

Euskal tresnek eta janzkerak euren txokoa izaten dute, Larrabetzuko uriaren 625. urteurrena ospatu zen urteaz geroztik (2001. urtea). Euskal Txokoak herritarren ikusmina pizten du, eta azpimarratu behar da lehenengokoak zaharrei egin zien zirra. Antzinako gela bat erakutsi zen orduan,

eta han bertoko jendearen argazkiak ipini ziren ikusgai; argazkiok hainbat gomuta ekarri zizkien zaharrei.

Amaitu aurretik, Arrekikilik azoka hau aurrera eramaten laguntzen duten larrabetzuar guztioi eskerrak eman nahi dizkizue eta, aurtengorako berandu bada ere, txorierritar guztioi bertaratzera gonbidatzen zaituztegu.

Testua eta argazkia: Arrekikili euskara elkarteak



Telefónica eta besteak

Testua: Alberto Legarreta

Gaur egun eskaintza handia dago telefonian. Internetegaz konektatzeko be produktu eta zerbitzu asko dagoz. Baina, jendeak aukeratzten dau ala dana da bardina?

Teknologikoki Telefónicak eta Euskaltelek baino ez dabe emoten zerbitzua, eta Euskaltelek leku gitxitan oraindino. Ez dozu aukerarik, beraz. Uni2, Jazztel, Retevision edo ADSL linea kontratatu ezker, Telefónicaren teknologia erabili behar dozu derrigor. Egia da Euskaltelek be bere zerbitzuak emoten ditula, baina bere lineak ipinita daukazan lekuetan baino ez.



Bakotxak bere konpainiari ordaintzen deutso eta horrek dirua eman behar deutso Telefónicari, bere azpiegitura erabiltzeagaitik. Guztiok dakigunez, Telefónica publikoa zan eta sareak diru publikoagaz egin ziran. Halan be, pribatizatu zanean, sare horreek bere esku gelditu ziran. Elektrizitate eta ikus-entzunezko merkatuetan, barriz, ez da halan gertatzen, sarea eta zerbitzua bananduta dagoz eta. Ganera, ez dago hainbesteko indarra dauen enpresarik.

aldirio ezarri (hareek gobernuak ipintzen dabez). Hau da, egoera pribilegiatuan daukagu operadore bat, sarea bere menpean daukana, eta beste guztiak ordaindu behar deusie erabiltzeagaitik. Kontuan hartu behar da Gobernuak zelanbaiteko laguntza ezkutua emoten dauela gauzak holan jarraitzeko.

Beraz, operadore barri batek bere azpiegitura ipini beharko leuke (horrek inbertsino handia behar dau) edo, ostean, Telefónicaren teknologia kontratatu eta interkonezio salneurriak

Egoera honetan geu gara galtzaileak, konpetentzia ezak zerbitzuen salneurrian eta kalitatean eragin handia dauka eta. Telefónicak konpetentzia gogorra eukiko baleu, bere zerbitzua kalitatea hobetuko litzateke. Duda barik, Telefónica egoera pribilegiatu honetaz baliatzen da. Horretan nago ni, behintzat.

aldekoñe
 Ikerle Klinika
 TTXI - TTXI ARRA 18 27

Aruska Prieto Aguirre
 Urdulakergia

2008-2009
 aruska.com

Informazio gehiago
 Informazio gehiago
 Informazio gehiago
 Informazio gehiago

PAKTI 2008-2009
 2008-2009

Makay
 2008-2009

Getxoko
 2008-2009

2008-2009
 2008-2009
 2008-2009

ZAMUDIO

2008-2009
 2008-2009

Sotela Askofazaga
 2008-2009

2008-2009
 2008-2009

SUNOS COMPUTERS S.L.
 2008-2009

2008-2009
 2008-2009

TALLESS JUAN ANDRES
 2008-2009

2008-2009
 2008-2009

Bilboko Metropoliaren Lurraldeko Plan Partziala mahai gainean Larrabetzun

Txoriemiko plataformek hainbat errekurtso aurkeztu dizkiote egitasmo honi



Larrabetzun mahai ingurua egin zen Bilboko Metropoliaren Lurraldeko Plan Partzialari buruz. Geroa taldeak antolatutako mahai inguru horretan hiru hizlari aritu ziren: Martin Arregi, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko zuzendaria dena, M^a Isidra Busturia, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu Saileko teknikaria dena, eta Lezamako Txema Pico ekonomilaria. Bertara bildu ziren entzuleek ere euren iradokizunak eta zalantzak azaltzeko aukera izan zuten.


Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailak hasierako onarpena eman zion Bilboko Metropoliaren Lurraldeko Plan Partzialari (PTP) uztailean. Egitasmo honek lurralde osoa berrantolatuko du hurrengo 15 urteetan. Hala ere, PTP dokumentu hau ez da behin betikoa, eta urtarilaren 30era arte errekurtsoak jarri ahal izango zaizkio. Hori zela eta, Larrabetzuko Geroa

elkartean mahai ingurua antolatu zuen azaroaren 13an. Bertan, egitasmo honen ardatz nagusiak azaldu ziren.

PTPren helburu orokorra hiri dentsoa lortzea da, dagoen lur eremu urria egoki aprobetxatzeko, eta era horretan lurra edozertara ez gastatzea edo alferrik galtzea. Hiria erabilera mistoko gunetzat jotzen du, etxebizitza eta jarduera ekono-

mikorako esparruak lotuz. Industriarako erabilitako lurak edo zahartuta daudenak berriz erabiltzearen aldekoa da egitasmoa.

Lurra ondasun urria dela kontuan hartuta, inguru babestuak berrantolaketatik kanpo utzi dira, lurraldearen azterketa egin ondoren. Inguru babestuok dira, esate baterako, Gorbeia parke naturala eta Zierbenako padurak. Haranetako lurak ere babestuko lirateke printzipioz,



“Proposamen ekonomiko eta erresidentzial inportanteetarikoak Txorierrira ekartzea proposatzen su PTPk”

dira, hiria eraikitzeke errazena baitira, bai eta, nekazaritzaren ikuspuntutik, aberatsenak ere”, aipatu zuen Busturiak.

Beste alde batetik, hurrengo 16 urteetan populazio kopurua (900.000 biztanle Bilboko metropolian) mantenduko dela uste den arren, 90.000 etxebizitza eskainiko ditu PTPk. Bilboko Metropolian lur “libre” gehien duen eskualdea Txorierriridenez, PTPk proposatzen du garapen ekonomiko eta erresidentzial inportanteak bertan kokatzea.

Txema Pico ekonomilariak ere mahai inguruan hartu zuen parte, eta hainbat

kritika egin zizkion egitasmoari. Bere ustez, PTPk proposatzen duen erredua da kosta ahala kosta produzitzea eta lurra gastatzea. Haren iritziz, “ezin da justifikatu gaur dugun populazio berberarentzat hainbeste etxebizitza berri proposatzea, are gutxiago gaur egun 30.000 etxebizitza okupatu barik daudela kontuan hartzen bada. Jarduera ekonomikoari dagokionez, gaur egun 856 hektarea daude kalifikaturik eta erabili barik. Horiek sobran dira hurrengo hamarkada bietarako aurreikusiten diren garapen ekonomikoetarako, beraz ezin da justifikatu beste 580 hektarea gehiago kalifikatu nahi izatea”.

Beste alde batetik, “Nerbioiko urbazterretatik enbarazu egiten duten jarduerak kendu eta Txorierrira ekarri nahi dira”, salatu zuen. Gaineratu zuen proposamen ekonomiko eta erresidentzial inportanteetarikoak Txorierrira ekarri nahi dituztela, lur eremu libre handiak dituela argudiatuta. Azaldu zuenez, “horrek eskualdeko jasangarritasuna eta pertsonalitatea suntsituko ditu”.

“8 urtetan 17.700 biztanle izatetik 54.000 izatera pasa liteke Txorierririd”

Txemak azaldu zuen bezala, Txorierrin batetik bestera mugitzeko dauden arazo larriak konpontzeko, errepide gehiago egitea proposatzen da, baina trenbiderako proposamenak askoz ere laburragoak dira. Haren iritziz, hori ez da batere onargarria gure eskualdean.

Gehitu zuen Bilboko Metropolia ezin dela “unitate” bat bezala tratatu, izan ere, Txorierririd eskualde berezia da ikuspegi kultural, soziologiko eta ekonomikotik begirata, eta halaxe frogatzen da, esate baterako, euskaldunen kopurua, nekazaritzaren presentzia edo populazioaren identifikazioak kontuan hartzen badira.

Argazkia: Iñigo Gaztelu

Txorierririd herri plataformek Bilboko Metropoliarid Lurraldeko Plan Partziala bertan behera uzteko eskatu dute

Sondika Eginez, Lehia, Derio Aurrera, Zamudioztarren Irrintzie, Sasoiz eta Larrabetzuarrak plataformek Bilboko Metropoliarid Lurraldeko Plan Partzialaren (PTP) kontrako hainbat helegite aurkeztu eta egitasmo hori bertan behera utzi eta prozesu berri bat irekitzeko eskatu dute. Horrela, bada, talde aberztaleen ustez, PTPren onarpena herriid beharrak eta herritarren ahotsa kontuan hartu barik bultzatzen ari da. Ildo honetan, salbuespenak salbu, udalen portaera ere kritikatu dute, euren esanetan, egitasmo horrek Txorierririd ekarriko diona ezkutatzen saiatzen dabilta eta, baita plataformen proposamenak oztopatzen ere.

PTPren edukiarid dagokionez, hurrengo bost puntu hauek azpimarratu dituzte:

1. Egitasmoak Bilbok zerbitzu hirid handia izateko behar dituen premiak gehiago

kontuan hartzen ditu, Bilbao Metropolitanarren barruan dauden 35 herriid garapen orekatua baino. Horrela, Nerbioi ibaiaren inguruko lur eremuak libratzeko, hainbat azpiegitura (Zorrotzako hiltetgia, Basauriko Mercabilbao, Trapagako Aparcavisa...) Txorierririd ekarri nahi dira, bailaran lur libre asko dagoela esanez. Beraz, plataformen arabera, Bilbao Metropolitanarren kontzeptua ez da berdina Bilborako eta beste 34 herrietarako, azkenak lehenengoaren menpean gelditzen dira eta.

2. Txorierririd ipar bideak, Leioako EHU eta bere enpresa gunea, aireportuko parke logistikoa, Zamudioko teknologia parkea eta Lezamako Gurutze auzoa lotzen ditu. Euren ustez, erabilpen industrialari begirako bidea izango da, garraio publikoaren erabilera eskaeraren arabera irizpideei utziz. Gainera, Txorierririd

korredorea, Lezamarako planteatutako garapen berriekin eta Artxandako tunelekidin, A-8ren alternatiba bihurtuko dela salatu dute.

3. Egitasmoak dituen etxebizitzaren arloko aurreikuspenei dagokienez, Txorierririd 8 urtetan 17.700 biztanle izatetik 54.000 izatera pasa litekeela jakinarazi dute. Hori dela eta, Txorierririd herri “dormitorio” bihurtuko litzateke.

4. Bilboren mesedetan Txorierririd kalte-tuko da, eta horrexegatik PTPk proposatzen duen garapen sostengarriarekin ez datoz bat.

5. Azkenean, Txorierririd herriid identitateaz kezkatuta agertu dira. Izan ere, PTPren aurreikuspenak aurrera eramanez gero, zaila ikusten dute identitate propioa mantendu ahal izatea.

UMIENIZARID MOZA

Tximeleta

Lanbide osoa
Telefono: 94 66 11 11
Fax: 94 66 21 21

LABAI

Enpresa

- Ikerketak (Instituzioak)
- Merkatuak
- Urtugailak
- Muga
- Omenak erortuak

Enpresa-zerbitzuak

- Fin. Ar. erortuak (Instituzioak)
- Logistika eta Irteerak
- Omenak erortuak
- Puntuak

1984. urtean
estatuaren
BILBO-ETXEA
Lurraldeko
Lurraldeko

DERIO FRUTADENDA

Soliba, 8
Telefono: 945 77 12 52
DERIO

Loiuko San Pedro elizako altara-burua

Txorierrin ez daukagu antzinako eraikuntza ospetsurik, baina badira horrehemenka ikusgarriak diran eta arte aldetik ere nahiko aberastasuna daukien etxeak, dorreak eta, batez be, elizak. Honeen artean, distiratsua izan ez arren, bere bitxikeriak eta gauza dotoreak dituan Loiuko San Pedro parrokia aitatu beharra dago.

Aita Coscojalesek *Antigüedades de Vizcaya* liburuan aipatzen dauen lez, Loiuko eliza XII. gizaldian eraiki zan. Aldi berean eginak dira Lezamako Andra Mari eliza, Sondikako San Joan eliza zaharra eta Erandioko Andra Mari parrokia.

Liburu horretan azaldutakoaren arabera, eta bertako atean egoan idazki batekin inoan bezala, Loiuko eliza 1634. urtean barriztatu eta handiagotu zan. Ganera, Espainiako Isabel erreginaren gudarosteek saskildu egin eben 1836. urteko Karlistada gerran.



Urteak aurrera joan ahala, beste barrikuntza asko egin dira. Azkenekoak 1996. urtetik oraintsu arte egin diran barriztatze eta garbitze lanak doguz, eliza eta eliz ingurua oso txukun eta dotore ipini dituenak.

Loiuko eliza txikia da, ez dauka handitasunik, baina bere armonia eta edertasun umila gustagarriak dira. Gustura egoteko lekua da.

Bere Erdiko altara-buru nagusia bertako bitxikeriarik ederrena da, baita alboetako biak be. Erdiko erretaulak altara-buru osoa hartzen dau. Erdi-erdian San Pedroren irudia dago; goiko parte eta alboetan Ama Birjina eta Santuenak.

Barroko artean ohitura zan lez, altarak, sagrarioak eta erretaulak, tabernakulu baten bidez alkarrekin lotuta, osotasun ezin hobea lortzen dabe. Erretaula ez da soilik irudiak ipintzeko lekua, bere egitura osoa artelan ederra da eta, irudiakaz batera, egitura arkitektoniko bateratua egiten dau. Beraz, erretaulak, altareagaz eta sagrariogaz bat eginik, lortzen dauen armonia eta osotasuna aitatzekoak dira.

Esan behar da Barroko aldiko Rococo estilokoa dala.

Alboetako erretaulak txikiagoak eta apalagoak dira. Ezkerrekoa Arrosarioaren erretaula da. Arrosarioko

Ama Birjina da bere irudi nagusia, santuen irudiakaz inguratuta. Hemen dago kokatuta gaur egun Ama Birjinaren irudia, oraintsu arte elizaren kanpoko aldean, ateburuan, egoana. Berau da irudirik zaharrena eta baliotsuena, antza danez, XIV-XV. gizaldikoa.

Beste alde batetik, eskoi aldekoa, hau da, sakristiaren ondokoa, Jesusen Bihotzaren erretaula da. Honen irudia erdian dago eta santuenak haren inguruan.

Artxiboetan ez da agertzen noiz eginak diran, ezta egileak nortzuk izan ziran be. Halan be, XVIII. gizaldian egin ziran barriztatze eta handiagotze lanei buruzko datuak badagoz. Aldi honetan, XVII. gizaldiko krisia gainditu eta gero, era honetako lan asko egin ziran. Horretarako, Euskal Herritik kanpoko irudigile eta margolariak ekarri behar izan ziran. Sasoi honetan, margotu eta urreztatu ziran irudi honeek be, garbiketa sakon baten ostean, ikus daitekezan kolore eder eta ikusgarriakaz.

Benetan gauza polita ikusi gura badozu, egizu bisitatxo bat Loiuko elizara. Ez zara damutuko.

Testua eta argazkia: Juantxu Bilbao

ANTZOKIA - ERROJOLARENDA
Ruben
Erretaileriaren Plaza, 5 - Tfn: 94 452 04 49
Zarauz (Bizkaia)


Erretaileriaren Plaza, 5
48940 ZARAUZ (BIZKAIA)

Comercio
TXORIERRI
Jose Antonio Soro
TEMPA OTO LANI PISTOLA
Tardana 10000
Valencia 46100
www.compania.com

Santiago bidea

Santo Domingo de la Calzadatik irailaren 13an goizaldeko 6etan urten eta Santiagora heldu ginan 17an goizeko 11,30etan, 640 km egin ondoren. Lurrezko bideetatik ibili gara, asfaltoa ahal danik eta gitxien zapalduz. Gogorra egin jaku, portu luze eta aldats handiak igon behar direlako (La Pedraja, Piedrafita, O Cebreiro, etab.) eta, batez be, egunero goizeko 7etatik arrastiko 7etara bizikleta gainean egon garelako. Toki eta herri askotako jendea ikusten da bidean: frantsesak, katalanak, euskaldunak, brasildarrak..., giro ezin hobean. Danak agurtu eta edonogaz egin daikezu berba bidaiaren esperientziak alkarri kontatuz; pertsona zintzoak eta zabalak gehienetan, ez bakarrik erromesak, herrietakoak, aterpeetakoak, basetxe eta urietakoak be bai. Aurten jende asko aurkitu dogu bidean, hori dala-eta aterpe batean lo egiteko leku barik geratu ginan eta kanpoan igaro behar gaua.

Azpirarragarria da galziarren abegikortasuna, herri apala eta bihotz zabalekoa, beti laguntzeko prest, eta, gainera, gureagaz konparatuta bizimodu "merkeagoan" dabilena. Bestalde, bidean aurkitu dogun paisaia be zoragarria da, bai

Parentziako lautada amaibakoak, bai Leon aldeko baso eta mendiak eta bai Lugoko aldats gora-behera sakonak: une txiki-zoragarri-ahaztu ezinak dira horreek.

Irailaren 17an goiz erdian, Santiagora heldu ginenean, aurrerantz begiratuta katedrala ikusiz eta atzerantz, berriz, egin dozun bidaia luzea eta sarritan gogorra gogoratuz, zeozer berezi sentitzen dozu barruan, etxera heltzean sentitzen dozunaren antzekoa. Nire kasuan gainera, soldaduzkako adiskide on bat han ikusterakoan, alkarren besarkadaren zain, berbakaz azaldu ezin dan momentua izan zan.

Datorren urtean milurteko lehenengo Xacobeo urtea da, eta zuok be animatuko zareelakoan, norbaitek ibilbidearen informazioa edo beste zehaztasunen bat beharko baleu, zuen esanetara naukazue, pozik.

Testua eta argazkia: Pedro Mari Olabarieta



Pedro Mari Santiago bidea bizikletaz egin du

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemiei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berriztaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atseden hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

Aurreko galderaren erantzuna: Elias Amezagak eman zuen Jorge Oteizari buruzko hitzaldia Sondikan.

Irabazlea: Jasone Sanchez Moran.



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Zeintzuk dira Aikor!-eko gehien irakurtzen dituzun atalak?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), abenduaren 10a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Arrain zopa

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Kilo erdi itsas zapo (rape)
- Itsas zapo buru baten erdia
- 200 gramo txirla
- 200 gramo ganba
- Kinpula bat
- Tomate bi
- Ogi azala
- Porru bat
- Zanaori bi
- Oliba olioa
- Gatza

Prestatzeko era

Egosi zapoa eta ganbak litro bi uretan 10 minutuan, eta gatza bota. Ipini olio sartenean, eta kinpula, porrua, zanaori bi eta tomate bi, dana txikituta bota; bigunduta dagoenean, ogi azal zati batzuk bota eta beste 15 bat minutuan egin daitela dana batera. Arraina egosten danean pasatu ura iraztontzitik (koladoretik), eta sartenean egindako ortuariak pasau pasapuretik eta bota saldatara. Arraina txikitu, ganbari azala kendu eta bota saldatara txirlakaz batera. Euki egosten 15 minutuan; zenbat eta denbora gehiago egosten euki gozoago.



Galeperrak saltsan

Osagaiak

- 8 galeper
- 4 kipula gorri (ertainak)
- 8 berakatz atal
- Pipermin gorri bat
- 4 koilarakada tomate frijitu
- Kopa bat koñak
- Baso txiki bat ardo zuri
- Gatz lodia
- Oliba olioa
- Ura

Prestatzeko era

Kazuela batean olioa, kipulak, berakatzak eta pipermina (denak txikituta) ipini su txikian erregosten edo frijitzen. Galeperrei gatza bota eta barazkiak erregosten direnean, ipini gainean eta utzi egiten. Noizbehinka buelta eman eta, kolorea hartzen duenean, koñaka bota eta su bizian flanbeatu, alkohol guztia erre arte. Gero ardo zuria eta tomatea gehitu. Minutu bi pasatu ondoren, galeperrak urez estali. Ordubetez su txikian utzi, saltsa eta txoriak egin arte.

Kazuelatik galeperrak atera eta saltsa irabiatu irabiagailuz. Azkenean galeperrei saltsa bota eta zerbitzatu.



Leke's jatetxea Zamudion.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Idi orgaren karranka"

Victor Hugo

Victor Hugok XIX. mendean Euskal Herritik egindako bidaiari erromantizismoko topikoak alde batera utziz, ikusitakoa zorrotz eta maitekor idazten du.

"Pako Fakirra"

Xabier eta Martin Etxeberria

Pako fakirra zen, neurri eta itxura guztietako ezpatak irensten zituen, baina behin Pako fakirra gaixotu egin zen eta orduan...ederra, benetan!

DISKOAK

"60ak"

Mikel Laboa

60ko hamarkada inguruko 21 kanten bilduma.



"Chinatown"





Vonda Shepard

New Yorken jaio baina Kaliforniako Encinon hezitako abeslariaren azken disko honetan, bizitzako gazi-gozoak musika eta letra ederrekin azaltzen zaizkigu.

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri?

Gai zara Udaletxe bakoitza herriagaz lotzen? Batzuk oso antzekoak direla? Erreparatu detailetan.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri? Emaizak: A7, B1, C3 (Udaletxe zaharra, oraingo Erandio Behekoan dago), D5, E6, F4, G2



Erakusketak

Zamudio

M^a Elena Maldonadoren laminak eta koadroak. Abenduak 10-25, dorrean

Derio

Gimnasia erritmikoa. Abenduak 20, 18:30etan, kiroldegian

Larrabetzu

Urkulu ola eta errota. Abenduak 21-28. Anguleri jauregian

Filmak eta antzerkia

Sondika

Olentzero eta Kuttun magikoa. Abenduak 18, 18:00etan, Goronda Beko kiroldegian

Zamudio

Doraemon y los piratas de los mares del sur, abenduak 5; Shinchan, abenduak 12; 8 Noches locas, abenduak 19. Guztiak 19:30etan, Zamudio dorrean

Lezama

Shinchan, abenduak 5; Santa Claus II, abenduak 12; Robin Hood-en abenturak, abenduak 19. Guztiak 17:30etan, Kultur aretoan

Olentzero eta Kuttun magikoa. Abenduak 21, 18:30etan, frontoian

Hitzaldiak

Zamudio

Unai Elorriaga. Abenduak 3, 20:00etan, dorrean. Lagatzuk antolatuta

Ikastaroak

Sondika

La comunicación que favorece una vida sana y positiva. Urtarrilean. Abenduan eman behar da izena. Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak antolatuta. Informazio gehiago: 94535171

Zamudio

Txakolinari buruzko kultur gela. Abenduak 18, 18:00-20:00, dorrean
Argazkigintza digitalari buruzko ikastaroa. Zapatuetan, dorrean.

Lezama

Esku lanak, bolillo eta pathwork, joga, saloi dantza, zur lanketa, tai ji... Abenduaren 1etik 18ra arte eman behar da izena liburutegian

Irteerak

Derio

Gorbeira irteera. Abenduak 14, Untza mendi taldeak antolatuta

Lezama

Erroibarrera eta Luzaidera (Nafarroa) mendi irteera. Abenduak 6tik 8ra. Gailur mendi taldeak antolatuta

Patinatzera. Abenduak 22, goizean, 6tik 18 urte bitartekoentzat

Bolatokira. Abenduak 23, goizean, 6tik 18 urte bitartekoentzat

Mayumana antzezlanak ikustera. Abenduak 30, arrastian, 12tik 18 urte bitartekoentzat. Hiru irtenaldiotara joateko abenduaren 2tik 15era arte eman behar da izena liburutegian

Euskal Selektzioaren futbol partidua ikustera. Abenduak 27. Abenduaren 2tik 18ra arte eman behar da izena liburutegian

Lehiaketak

Lezama

Gabon Txartelen V. Lehiaketaren sari banaketa. Abenduak 12, 19:15etan, kultur aretoan

Tailerrak

Derio


Jaietako ludomakilajea. Abenduak 13, ludotekan

Malabarren erakusketa eta tailerra. Abenduak 14, 16:30etan, kultur aretoan

Lezama

Gabonetako tailerrak. Martitzen, eguazten eta eguenetan, Ludotekan, 17:30etatik 19:30etara

COMERCIO DE ALIMENTOS Y PRODUCTOS DE LA TIERRA
SANTO MIAMI
C/ San Martín, 1
T. 945 35 11 27
Fax: 945 35 11 27
945 35 11 27



SANTO MIAMI
C/ San Martín, 1
T. 945 35 11 27
Fax: 945 35 11 27

PIPIKA IKUSLAN
Presentazio profesionala
Berebizitza ikusleak
Egia-aitortza ikusleentzat
1. Kulturagoa erakutsi

Val. Leizaola / Fax: 945 35 11 27 / 945 35 11 27

GUEDAN
Leizola ikusleentzat
DARROKORRE URSAL KIROLDEGIAN

Informazio gehiago: 945 35 11 27 / 945 35 11 27
Fax: 945 35 11 27 / 945 35 11 27

MENFORSAN S.A.
SERVICIOS DE MANTENIMIENTO

Mantenimiento, reparaciones, trabajos de pintura y decoración
Mantenimiento de maquinaria agrícola y forestal
Mantenimiento de maquinaria pesada

Mantenimiento de maquinaria pesada
Mantenimiento de maquinaria pesada

NOVA HOLD - ACCIONES - 945 35 11 27
TEL: 945 35 11 27



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

atera gorria!



bbk =

www.bbkk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila